



ARGIA

GIPUZKOAKO ALDUNDIAREN PUBLIZITATE INSTITUZIONALA

NORA DOA DIRU PUBLIKOA?



» **LARRUN:** ERRAUSTEGIA, EPAIKETAK ETA DESAGERTUTAKO DOKUMENTUAK

» **JON SARASUA:** "KOOPERAZIOAN GUTXITAN IKUSI DUT HIZKUNTZA LANKIDETZAN BEZAINBESTEKO INPAKTU AZKARRA"

» **RICARDO URRIZOLA:** "BADIRUDI 36KO IRUÑEAN PISTOLA, ALKOHOLA ETA BARRABILAK ZIRELA NAGUSI"





ARGIA

**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAIUENA**

Egin ARGIAkoa!

Eman eta jaso
nahi duzun neurrian

argia.eus/eginargiakoa

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Fauna publikoa
- 10 OxyContin epidemia
AEBetan: medikuak
bihurtu gaitu jonki
- IRITZIAK**
- 17 Asier Blas
- 18 Jon Alonso
- 19 Rosa M. Martín-Sabarís
Leire Narbaiza Arizmendi
- 20 Karmelo Landa



Aman Komunak sarea osatzen ari dira herri mugimenduetako hainbat kide. Sorreratik parte hartzen ari diren Maddi Sarasua eta Hartzia Lopezekin mintzatu gara proiektuaren nondik norakoez. AXIER LOPEZ

- 39 DENBORAREN MAKINA
- 40 BIZI BARATZEA
- 42 ARGIAKO AZOKA
- 43 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 49 KONTZERTUA
- 50 ZUZENeko EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
RICARDO URRIZOLA
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Uxua Lopez: "Emakumeen talentua baliatu behar dugu klima aldaketaren borrokan" / Reyes Ilintxeta
- 22 | Nola banatzen da publizitate instituzionala Gipuzkoako Aldundian? / Axier Lopez eta Lander Arbelaitz
- 28 | Bestelako zaintza egiturak: Tribunal hazten / Z. Oleaga
- 31 | Jon Sarasua: "Europar inor ez da ari hizkuntza lankidetzan" / Miel A. Elustondo
- 34 | Alfako langileak greba mugagabeen: Sirena isildu ez dadin/ Miren Osa Galdona
- 36 | Aman Komunak: "Ez gara jabetzen herri mugimenduak Euskal Herrian duen indarrak" / Axier Lopez
- 44 | Nork hil nahi du nobela beltza Baztanen? / Gorka Bereziartua
- 46 | Oscar sariak eta Internet / Gaizka Izagirre

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE


**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Gipuzkoako Foru Aldundia


Jabetza: Komunikazio Bizilagoa, S.A.L.
Ametzagaña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza.
Zuzendaria: Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Andoni Mikelarena, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Miren Osa, Onintza Irueta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador.
Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Carmen Loiarde, Marijo Aiertza.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Web garapena: Asier Iturralde.
Informatika: iametza interaktiboa, S.L.
Lege gordailua: SS 837-2012.
ISSN: 0213-909X.
Batzorde parekidea: 72562 E.
HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel.: 943 371545.
Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.
POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus
Harpidetzak: harpide@argia.eus
Erredakzioa: kazeta@argia.eus



Garaipen historikoa

Borroka luzea da Britainiako Notre Dame des Landes-eko aireportuaren aurkako. Ia 50 urtez aritu dira ingurune naturalaren suntsipena eta han bizi diren herritar eta nekazarien kanporatzea eragingo zituen proiektuaren kontra. Urtarrilean, ordea, Frantziako Gobernuak jakinarazi zuen atzera egingo duela eta aireportua ez duela eraikiko. Historikotzat jo dute garaipena eta hala ospatu dute asteotan ZADeko erresistentzia eremuan bizi direnek. Izan ere, aireportuarentzat ziren lurak eta etxeak okupatu eta biziberritu dituzte azken urteotan; bizigune, etxola, landa, baratze, gasnategi, okindegi, zurgintza tailer, liburutegi eta abarrak sortuz. Herri bat. Hori da orain arriskuan dagoena. Han bizi den jendea indarrez kanporatzeko agindu baitu Gobernuak. Borroka berri baten hasiera da.

Argazkia: Kauldi Iriondo · Testua: Axier Lopez



“Inork euskaraz hitz egiten badu, kalera doa”. Manuel Sarrión González epaileak mehatxua bota du, Idiazabal-Elgoibar taldeen arteko futbol partiduan.

“Kontua ez da arbitroa nongoa den. Kontua da batzuek botere-guneak baliatzen dituztela gure eskubideak urratzeko eta euskaldunak mespretxatzeko”

@paulbilbao

“Lotsagarria gertatutakoa. Euskaraz hitz egiteagatik mehatxatzea arbitroa kaleratzeko modukoa da, ez jokariarik. Euskara altxor kulturala izateaz gain eskubidea ere bada, nahikoa da!”

@Amaia_92

“Esaldiak dio ‘ura pasa ondoren presa egitea alferrikako da’ neurriak aurretik hartu behar direlako. Epailearena lotsagarria da baina baldintza horietan bi klubetako arduradunek planto ez egitea penagarria”

@izoztegi



Bihotz formako kandlek hartu zuten plaza Ondarroan, Ekai agurtzeko.

ARITZ LOIOLA / ARGAZKI PRESS

16 urteko mutil transexual batek bere buruaz beste egin du

Argia

Chrysallis EH Elkarteak jakinarazi du berria. Ekai gaztearen amak semearen gorpua hilik topatu du otsailaren 15eko goizean, Ondarroan. Gizarte osoak galdutako borroka dela nabarmendu dute.

Ekaik egunerok aurre egin beharreko borroka nerabe batentzat gehiegi izan litezkeela ondorioztatu du Chrysallisek. Erregistroan izen-aldaketa lortzeko, Gurutzetako ospitaleko “genero unitatean” inoiz heldu ez eta behar zuen hormona-tratamendua jasotzeko edo institutuan bere errealitatea azaldu eta errespetatzeko egin ez zen formakuntza-saioa ematea

lortzeko borroka jarri dituzte adibide-tzat.

Orain arte bezala, lanean jarraituko dutela adierazi dute, aniztasuna ulertu eta informatuta dagoen gizartea lortu arte. “Direnak diren eta izatea ukatzen zaien gazte guzti horientatik lanean jarraituko dugu”.

Elkarteak babes osoa eskaini dio familiarari. Ez da samina adieraziz zabaldu den mezu bakarra izan. Sare sozialetan babesa erakutsi dute norbanako eta erakunde ugari, eta mobilizazioak izan dira Euskal Herriko hainbat tokitan. Ondarroan, transfobiaren kontrako protesta batekin agurtu dute herrikidea, “Ekai maite zaitugu” lelodun pankartapean.

“Hizkuntza irizpideengatik umeak banantzearen ondorio sozialak izugarriak lirateke”

CARME JUNYENT, HIZKUNTZALARIA

Kataluniako murgiltze eredu iraultzea du buruan Madrilek. 155. artikulua erabilia, Kataluniako Hezkuntza Publikoan hizkuntza lehentasuna aldatzea dute xede, gurasoek gaztelania hizkuntza nagusitzat jotzeko aukera izan dezaten. “Hizkuntza irizpideengatik umeak banantzearen ondorio sozialak izugarriak lirateke, eskolak zatiketa soziala bultzatuko lukeelako; kohesioa dago jokoan”, dio Junyentek. “Murgiltze ereduak erakutsi du primerakoa dela Lehen Hezkuntzan ikasleen arteko berdintasuna lortzeko”. **VILAWEB (2018-02-19)**



FAUNA PUBLIKOA

“Hiriak populismoarentzat frenoa dira”

Anne Hidalgo,
Parisko alkatea (*El País*)

Txingorra ari du, kontuz gidatu



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Esaldi bat izan daiteke aldi berean kategorikoa eta zehazgabea, Anne Hidalgo Parisko alkateak erakutsi digu. Kategorikoa da, berak gobernatzen duena bezalako Europako hiriburu handiak kontentzio-dike bihurtzen dituelako, klima sozial eta politiko nahaspilatuaren kontra. Eta zehazgabea da, erabiliaren erabiliaz hustuta geratzen ari den izena jartzen diolako arriskuari: populismoa, zaku bat non berdin kabitzen diren alderdi faxistak eta ezker muturrekoak.

Azkenean, hitz horien zentzua lausoago dago Sarkozy Putinekin bildu ondoren baino –badakit ez dela gaurko gaia baina, zer hartu ote zuten 2007ko bilera hartan gero kazetarien aurrera horrela agertzeko?-. Tira, harira. Nik uste Hidalgok esan nahi duela nukleo populatuenetan jendeak botoa ematen diola orain arte “egokia” izan den horri: Frantziako azken presidentzialetan ikusi zenez, hiri handietan Macronen proposamen neoliberalak gaina hartu zion Le Penen faxismoari –Marseillan izan ezik, dena esan behar bada–; aldiz, zenbait hirigune txikitik eta landa-eremutan FNren letaginak ikusi bakarrik ez, sentitu ere egiten dira geroztik.

Hiri handiak vs. landa-eremua beraz? Hedabide nagusiek argazkia marko horretatik atera zuten bozen ostein eta badirudi agintariei gustatu zaiela, zentro urbanoetatik nagusikeriaz begiratzen segi dezaketelako. Ez daukat argi, ordea, erretratuak balio ote duen gertatzen ari dena ulertzeko. Frantziako sistema politikoaren turbulenzien atzean haserrea dago, pastelaren banaketa honetan galtzaile atera direnen aldetik. Kontua da, galtzaile horiek geroz eta gehiago direla, baita Parisen ere. Hidalgok frenorik gabe gidatzen ikasteko kurtso bat egin beharko luke. ■



ANALISIA



Auzoan bizi, auzoan kontsumitu



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Xabier Letona

@xletona

Eztabaida zorrotza piztu da urtarrilean Iruñeko Alde Zaharrean merkataritza txikiaren egoera estuaz. Iragan udazkenean sartu zen indarrean Iruñeko Udalarren mugikortasun plan berria eta honek espazio gehiago ematen dio oinezkoari eta gutxiago autoari. Merkatarien elkar-teei, ordea, ez zaie gustatu eta Udalarren aurkako kanpainari ekin diote.

“Eskerrrik asko etortzeagatik, badakigu asko kostatzen zaizula heltzea”, esaten zion kartel deigarriak bezeroari. Baina arazoa Iruñetik harago doa. Otsailaren hasieran argitaratu zituen datuok *El Diario* egunkariak: urtarrilean 4.700 denda itxi ziren estatuan eta 2017an 50.000. Arrazoiak ugariak dira, baina UPTA Langile autonomoen elkarteko lehendakari Eduardo Abadek azken boladan asko hazten ari den bat aipatzen du, merkataritza elektronikoa: “Herrialdeko merkataritza ehuna txikitzen ari da abiadura bizian eta ez dugu egoera berrira ohitzeko ahalmenik”. 2016an Espainiako Estatuan 2015ean baino %23,3 gehiago saldu zen Internet bidez, 22.000 milioi euro.

Nafarroako Merkataritza Elkartek ere datu oso argigarriak eman zituen 2000-2015eko epeaz egindako azterketan. Bat: 2006 eta 2015 artean Nafarroan 2.007

merkataritza enpresa desagertu dira (%26,55) eta 2000 eta 2014 artean 2.911 denda (%28,55). Bi: saltoki handiek enplegua suntsitzen dute; 14 urtetan Nafarroan saltoki mota horren hedadurak 4.551 lanposturen galera ekarri du.

Azterketan argi ikusten da merkataritza txikiaren mehatxu esanguratsuen saltoki handiena dela. Paradoxa latza da, Iruñeko Zabalgunean dagoen El Corte Inglés ere –Alde Zaharretik 50 metrora eta oinezkoen eremuan dagoelab- at egin du merkatarien kanpainarekin. Egon daiteke elkartasun hilgarriagorik?

Txostenaren ondorio argienetakoa honakoa da: “Zentroaren eta periferiaren arteko oreka galduz doa, eta ondorioz, Iruñeko Alde Zaharreko, Zabalguneko eta auzoek merkataritzarako erakarpena galtzen dute”. Beste hau ere azpimarragarriada: “Gure lurraldearen eta hiri ereduaren antolaketa, merkataritzaren banaketa multinazionalen errentagarritasun handira egokitu behar dugu, edo, aitzitik, enpresa hauek egokitu behar dute haien negozio eredu gure hirien eredu trinko, konplexu eta jasangarrira?”.

Nork onartu eta bultzatu zituen politika horiek guztiak 2000tik 2015era? Zorionez, eztabaidan honako ikuspegia ere zabaldu da: “Niri ez zait kostatzen iristea, bertan bizi naiz eta bertan kontsumitu”. Hiria eta auzoa edozein direla ere, horra merkataria, auzotar eta hiri eredu egoki baterako ezinbesteko elikagaia.

EKONOMIAREN TALAIAN

680.000 pentsionista baino gehiago



Juan Mari Arregi

Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan 680.000 pentsionista baino gehiago dira eta horietako askok “miseriazko pentsioak kobratzen dituzte, pobrezia langaren azpitik daude eta gehienak emakumezkoak dira”. Hala salatu dute Hego Euskal Herriko pentsionisten elkarteek. Herri honen %25 den kolektiboa nazkatuta dago erosteko ahalmena nola galtzen duen ikusteaz. Milaka pentsiodun prekarietate erabatekoan bizi da, eta nabarmenezkoa da emakume eta alar-gunen egoera, normalean 700 euro baino gutxiago kobratzen baitute.

Azken asteetan kolektibo hau, babes politiko eta sindikal handirik gabe, bere kabuz mobilizatzen hasi da %0,25eko igoera amorragarri, irrigarri eta kaskarra salatzeko –hilean 2 eta 4 euro artean gehiago–. Aste honetan bertan, hilaren 22an, manifestazioa egingo dute Bilbon, eta pentsionisten plataformek jadanik euren babesa eman diote.

Egoera horren arduraduna ez da soilik Rajoyren exekutibo espainiarra; euskal erakundeak ere badira erantzule –Gasteizko eta Iruñeko gobernua–, mahai gainean baitituzte 80.000 sinadura 1.080 euroko pentsio duina eskatzeko, Europako Karta Sozialak Hego Euskal Herriarentzat ezartzen duena. Baina EAJ, PSOE, UPN eta PPK kontra bozkatu zuten; beste aldera begiratzen duten alderdi eta sindikatuek ere badute erantzukizunik.

EAJ, PSOE, UPN eta PPRi botoa ematen dioten pentsiodunak ados al daude euren pentsioekin? Pentsatzekoa da zati handi bat ezetz... Orduan, zergatik ez dira pentsiodun denak batzen, euren aukera politikotik landa, eta kalera ateratzen Estatu osoa gelditzeko? Ez ote da ordua iritsi alderdi politikoek, sindikatuek eta mugimendu sozialek greba orokorra deitzeko, hain prekario eta ahul dagoen pentsionisten kolektiboari babesa emateko?



LEFKANTUN

Maputxeak Korrika, mapuzugunaren alde

TEMUCO. Mari mari da maputheen agurra eta horrela hartu zuten otsailaren 16an Korrikaren ahizpa, Lefkantun. Ekintzaile gazteek antolatzen dute urtero Wallmapu-n, maputxe herria bizi den lurraldean, eta beraien jatorrizko hizkuntza, mapuzugun-a, biziberritzeko ekimenetako bat da. Izan ere, euskararen bidean ikasitakotik, Korrikaz gain barnetegiak ere etxekotu dituzte. Hizkuntzaren galera azkarra den garai hauetan, sentsibilizazioa bereziki garrantzitsua da.

Espainia zigortua, Portu eta Sarasola torturatzeagatik

Argia

Giza Eskubideen Europako Epaitegi Estrasburgok zigortu egin du Espainiako Estatuak Igor Portu eta Mattin Sarasolaren tortura kasuagatik. Torturaren aurkako Europako Konbentzioaren 3. artikulua urratu duela ebatzi dute eta 30.000 eta 20.000 euro eman beharko dizkie Espainiako Estatuak, hurrenez hurren.

Sistematikoa

Sorturen hitzetan, sententzia honek berresten du "tortura praktika sistematikoa izan dela Espainiako Erresuman, eta euskal independentismoaren aurka erabili den tresna dela. Torturak erabateko inpunitatea izan du".

Kondenak

Sortuk eskatu du Porturi eta Sarasolari ezarritako kondenak berrikusteko, nabarmenduz lehenbiziko aldia dela Estrasburgok Espainia kondenatzen duela "ez soilik tortura-salaketak behar bezala ez ikertzeagatik", baizik eta "torturatzeagatik".

Datutan

Duela gutxi Eusko Jaurlaritzaren enkar-guz Pako Etxeberrria antropologo forentsearen lan-taldeak eginiko txostenak 4.113 tortura kasu azaleratu ditu EAEn. Nafarroan, berriz, 700 kasu egiaztatu ditu Euskal Memoria fundazioak.

GERRA



29

zibil hil dituzte egunean Afganistanen 2017an. Hori da AEBek sustatu eta hainbat herrialdek babestutako gerraren emaitza lazgarria.

28.291 zibilen heriotza eta 52.366 zauritu zenbatu ditu Nazio Batuen UNAMA erakundeak, 2009tik hona.



URRE MEATEGIRIK EZ

Lapurdin urrea bilatzeko proiektua bertan behera geratu da. Kanbon eta inguruko hainbat herrietan urre ustiaketa egiteko eskaria egin zuen Sudmine enpresak duela hiru urte, eta protesta ugari egin dituzte herritarrek; azkenean, Frantziako Gobernuak ez dio horretarako baimenik eman.



DIOXINAK

Ikerketa batek frogatu du Marseillak Fos-sur-Merren daukan polo industrialaren - tartean erraustegiaren- inguruan ekoiztutako elikagaiak dioxinak, PCB eta bestelako kutsagaiak daramatzatela.



AURRE MATRIKULAZIOA

Nafarroan, A ereduak gora egin du, eta D ereduak behera, batez ere hezkuntza-sare publikoan. 2017ko matrikulen datuekin alderatuta, A ereduak %18,8tik %19,8ra igo da, eta D ereduaren izen emandako hiru urteko ikasle kopurua %30,7tik %29,4ra jaitsi da.

OxyContin epidemia

AEBetan: gure medikuak bihurtu gaitu jonki



Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Droga epidemia berriaren biktimak ez dira ghetto txiroetako gazte baztertuak. Oraingoan eltxoak pozoiarekin bezain ugari erortzen direnak dira langileria eta klase ertain zuriko seme-alabak, auzo estandarretakoak, etxe txiki baten eta bi autoren jabe diren gurasoak, zaharrak bezala gazteak. Edozein klasetako oinazeri aurre egiteko agintarien bezala medikuen establishmentaren bedeinkapen oroz OxyContin opiazeoa hartzetik abiatuta jonki amaitu dutenak.

“Nire *gamelua* egunaren 24 orduetan etor zitekeen, astearen zazpi egunetan. Neu ninduen bezero onena. Mezua bidali egin zidan errehabilitazioan sartuta nengoenean, material gehiago bazeukala”. *Dealerrak* prezio merkeagoa eskaini zion, berriro eroriko zelakoan, baina Nan Goldinek uko egiteko indarra atera zuen, ohartuta drogaren katea eteten ez bazuen denbora gutxiko bizia zeukala.

Goldin argazkilaria ezaguna egin zen 70eko eta 80ko hamarkadetako New Yorkeko giro alternatiboetan. Orduan egin behar izan zuen lehenbiziko errehabilitazioa garaiko estupefaziante ohikoenetatik garbitzeko. Gaur nozitzen dituen *monoak*, ordea, ordenaren maitale diren enpresaburu eta medikuek eragin dizkiote, Joanna Walters kazetariari kontatu dionez.

2014an Berlingo mediku batek gomendatu zion *OxyContin* ezkerreko eskumuturreko tendinitisa arintzeko. “Lehenbizikoz errezetatu zidaten 40 miligramo hartzea eta izugarri eragin zidan, goragaleak, makalaldia. Denborekin, ordea, egunean 450 mg behar nituen”. Tarteka pilula hauts bihurtuta esnifatu ere egiten zuen. New Yorkera itzulita medikuek ukatu ziotenean errezeta, merkatu beltzera jo zuen, *OxyContin* bila baina baita beste droga merkeagoen xerka ere, diruz estu zebilenean.

Massachusettseko errehabilitazio zentrotik iazko martxoan irtenda, *OxyContin* inguruko informazioen bila hasita ohartu zen erabat legezkoa

den botika hori dela AEBetan azken 20 urteetan zabaldu den opiazeoen krisiaren errudun nagusia. Drogen epidemia berriak dagoeneko 200.000 pertsona baino gehiago hil ditu AEBetan.

Larriagorik ere jakin zuen, ordea, betidanik arte munduan mugitu den Goldinek: *OxyContin* marketin estrategia bihotz gabeenak erabiliz medikuen eta jendeen artean nagusitzea lortu duen Perdu konpainia Sackler familiarena dela, New Yorketik Londresera, Guggenheim, MET eta artearen beste tenpluetan atal ospetsuen babesle diren Sackler filantropoena. “Ez dakit nola bizi daitezkeen beren larruaren barruan”.

The New Yorker kazetaren joan den urriko alean Patrick Radden Keefek dossier mamitsua eskaini zion Sackler familiari: “Oinazeko inperio bat eraiki zuen familia”. Bigarren titulua: “Sackler dinastiak beren analgesikoaren erruki gabeko marketinarekin sortu ditu milaka milioiko etekinak... eta milioika drogen menpeko”.

Arthur, Mortimer eta Raymond Sackler –hirurak hilak, azkena iaz– mediku eta enpresaburuek AEBetako fortuna handienetako bat pilatu zuten, 13.000 milioi dolar *Forbes*en kalkuluetan, Rockefellertarrena baino altxor handiagoa. “Sacklertarrak sarri elkarrizketatu zituzten bere filantropiazko lanez, baina publikoki oso gutxitan aipatu zuten aberastu zituen negozioa: hiruren familiena den Purdue Pharma, *OxyContin* analgesikoa 1995ean garatu zuena”.



Medikuntzako establishment guztiak egin zion ongi etorri beroa *OxyContin*, oinaze erdi mailako eta gogorak dauzkaten gaixoentzako botika txit egokia zelakoan, bere ahalmen narkotikoak pixkanaka askatuz luzeago iraun arazten zituela eta. 35.000 milioi euroko etekinak emango zizkion Purdueri.

*OxyContin*en molekula oxykodona da, heroinaren lehengusua kimikaz eta morfina baino bi aldiz indartsuagoa. Iraganean medikuek nekez gomendatzen zuten opiazeorik –opiotik eratorritako droga sintetikoak– ez bazen minbizien oinaze handientzako edo heriotzaren mugakoentzako, botikok menpekotasuna eragiten dutelako. Medikuek izateaz gain gaztetatik marketinean trebatutako Sacklertarren gakoia izan da doktoreen fidagaiztasuna gainditzen asmatzea.

Eta farmazietatik hedatu zen izurritea

Purdue konpainia *OxyContin* merkatu-ratzeko marketin kanpainarekin medikuen ohiturak aldatzen ahalegindu zen. Aritu famatuak erosi zituen espreski prestatutako ikerlanekin iradoki zezaten botika berriak klase askotako oinazeak arintzeaz gain aparteko adikzio arazorik ez zuela sortzen, ordura arteko azterketetan opiazeoen menpetze ahalmena esajeratu egin zela.

Milioika gaixok eskertuko zuten *OxyContin*ek hobetzea bizi kalitatea, baina beste asko hain zeuden hari ka-teatuak ezen eta dosi batetik bestera



'The Onion' aldizkaritik hartutako argazkian, OxyContin-en iragarki bat autobus geltoki batean: 'It gets you high' euskaraz "igoarazten zaitu" esango genuke, edo "suspartzen zaizu", baina ingelesez hitz joko maltzurra egiten du leloa Hegoaldeko euskaldunak "subidoia ematen dizu" esango lukeenarekin. 2017an AEBetan barrena zabalduak publikitate arrunta ez balitz... Perdue konpainiak 2006an, urte bete lehenago, auzitegi federal batean onartua zuela marketin gezurtia erabili zuela, 600 milioi dolarreko isun eta guzti. Inpunitatea zer den.

arteko tartetan ere abstinentsia latza nozitzen zuten.

OxyContin merkaturatuta laster hasi ziren albiste kezagarriak zabaltzen, leku askotan ugaztaren ari zirela botikaren erabilera okerrak. Medikuek gero eta sintoma gehiagorentzako errezeptatzen zuten, gaixo batzuk hasi ziren beren pilulak merkatu beltzean saltzen. Alderantzizkoa ere gero eta sarriago gertatzen zen, *OxyContin*-en menpean erori ostean hura eskuratu ezinda beselako opiazeoetara jotzea, heroinara bidenabar.

2003rako DEA Drogen Aurkako Agenciak salatu zuen arren Purduek botikarekin egindako marketin erasokorra zegoela epidemia berriaren oinarrian, uholdea gelditzeko modurik ez da izan, hainbeste zabaldua dago medikuen bezala gaixoen artean modako narkotikoa-

rekiko lotura. AEBetako Adikzioentzako Medikuntza Elkartearen kalkuluetan, gaur heroina kontsumitzen duten bost pertsonatik lau medikuek errezeptatutako analgesikoekin hasi ziren.

Eta sarraskiak aurrera darrai. Gaur egunero han 145 pertsona hiltzen dira opiazeoen gaindosiz; orotara 200.000 heriotza aipatzen dituzte kalkulu ofizialek. Opiazeoetatik *zintzilik* 2,4 milioi iparramerikar daude.

Opiazeoen merkatua eten gabe aldatzen da. *Le Monde Diplomatiquen* Maxime Robinek azaldu duenez, azken urteotan opiazeo erabat sintetikoak nagusitu dira, Fentaniloa eta Carfentaniloa. Txinatik askoz merkeago ekarriak, inongo landaririk erein eta uztatu beharrik gabe laborategietan ekoizten direlako, askoz bortitzagoak dira heroina edo morfina bera baino: esatearekin

hiru miligramo *Fentanyl* aski direla giza-ki bat hiltzeko... Gai dosiagatik azken kasu gehienak horiei omen dagozkie, tartean Prince kantariarena eta, berrikitan bere familiak jakinarazi duenez, Tom Pettirena: biak ere, ez kasualitatez, medikuak errezeptatutako *OxyContin*etik abiatuak ziren.

2003an Barri Meierrek salatu zuen gaia "Analgesikoa: 'botika zoragarri' baten adikzio eta heriotzazko arrastoa" liburuan. 15 urte geroago AEBetan denon ahotan dabil *OxyContin* krisia, Europan ere erreplikaren bat izango duena. Ez da azkena izango, farma-industriak teknika berarekin darraielako beste hainbat botika berri sortu eta saltzen: konpainiek erositako ikerlari eta medikuek gomendatutaz gero, herritarrek begi itsuan onartzen dituzte erremedio berri eta garestienak. ■

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

50 urtez elkarrekin

Uxua Lopez, telekomunikaziotako ingeniaria

«Emakumeen talentu guztia baliatu behar dugu galtzen ari garen klima aldaketaren borrokan»

80 emakume zientzialari espedizio batean ari dira egunotan Antartikan, tartean da Uxua Lopez. Duela bi urte ehuntzen hasi zen 1.000 emakume adituren sareko kide dira. Emakumeen lanari ikusgarritasuna ematea da lehen urratsa. Hurrengo, klima aldaketaren inguruan erabakiak hartzen diren guneetarako bidea irekitzea, berandu baino lehen.



Reyes Ilintxeta

@ReyesIlintxeta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Zein da zure lana Acciona enpresan?

Azken bost urteotan kontrol zentroan ari naiz lanean. Handik energia berriztagarrien 400 bat estazio kontrolatzen dira, 14 gigabyte-eko energia iturriak. Ia 80 pertsona ari gara lanean atal horretan eta ni sistemaren segurtasunaz arduratzen den taldean nago. Duela bi urte ziber-segurtasun graduondoa egin nuen eta industriarako kontrol sistematik kudeatzea da nire espezialitatea. Alor horretan gerta daitezkeen arazoek eragina izan dezakete fabrika baten jardueran, elektrizitate zentral batean edo semafoeren funtzionamenduan. Ondorioak oso larriak izan daitezke pertsonentzat. Guk orain arte, zorionez, ez dugu ezustekorik izan.

Zer da Antartikako bidaia hori?

Urtebeteko formakuntzari amaiera jartzeko dion espedizioa da, Homeward Bound proiektuaren barruan. Ekimen hori duela bi urte sortu zen hamar ur-

tera begirako helburuarekin. Urtero 80 emakume aukeratzen dituzte STEM (zientzia, teknologia, ingeniari eta matematikak) alorrekoak. Sare bat osatzen dute eta helburu nagusia da hamar urte barru munduan 1.000 emakume ongi prestatuak izatea, klima aldaketaren inguruko erabakiak hartzen diren guneetan ardura postuak izan ditzaten.

Aurtengoa bigarren edizioa da. Ideia Australian sortu zen. Emakume zientzialari bat, Jessica Melbourne-Thomas, eta trebatzaile bat, Fabian Dattner, elkartu ziren emakumeen lanari balorea emateko asmoz. Zenbait ikerketa garrantzitsutan bildutako datuek erakutsi zieten genero parekidetasuna duten lantaldeen emaitzak %50 hobeak izaten direla gizonak gehiengoa diren taldeetan baino. Bi emakumeok konturatu ziren klima aldaketaren borroka galtzen ari garela eta onuragarria izaneko zela parekidetasunaren estrategia aplikatzea.

Zergatik funtzionatzen dute hobeki talde parekideek?

Ikerketa horietan ikusten da emakumeok gure sormenaren eta gure espe-

Uxua Lopez Flamarique

Tafalla, 1983

Telekomunikaziotako ingeniaria da. Duela hamabi urtez geroztik Acciona enpresan ari da lanean eta otsailaren 13tik Antartikan dabil *Homeward Bound* proiektuan parte hartzen. Zientzia eta teknologia alorretako mundu zabaleko 80 emakume bildu dira ekimen horretan, urtebeteko formakuntza saioa egin ondoren. Helburua da 2025erako 1.000 emakumeren sare eratzeko klima aldaketaren aurkako borrokan erabakimen postuetan esku har dezaten.



rientziaren bidez bestelako soluziobi-deak ematen ahal dizkiegula arazoei. Oso kontu larria da emakumeen talentu guztia alferrik galtzea. Askotan galdetu izan diot neure buruari zer gertatu den hainbat mendetan aprobeixatu ez den talentu horrekin guztiarekin.

Argi dago emakumeok baditugula beste ikuspuntu batzuk, bestelako bizi esperientziak ditugulako. Arazoei aurre egiterakoan, esate baterako, orain arte ohikoak izan ez diren soluziobideak bilatzeko gai gara. Oro har, hobeak gara talde-lana egiterakoan. Batzuetan soluziorik onena ez dator ezagutza tekniko oso altua duzulako, baizik eta hori izateaz gain, kontuan hartzen dituzulako beste gauza asko: elkarlanaren balioa, zer nolako emozioak sorrarazten dituzten hartutako erabakiek, zer ondorio ekarriko dizkien beste pertsoneri, esate baterako. Emakumeen talentu eta trebetasun guztiak baliatu behar ditugu galtzen ari garen klima aldaketaren borrokan. Jokoa dagoena ez da emakumeen, gizonen edo pinguinoen bizirau-pena, denona baizik, planeta osoarena.

Nola izan zenuen proiektu honen berri?

Aurten parte hartzen duten emakume gehienek aurreko urteko norbait eza-gutzen dute, baina nik irratsaio baten bidez izan nuen honen berri. *Carne cruda* deitzen da saioa eta oso interesgarria da, trataera bikaina ematen dielako bai genero gaiei baita zientziakoei ere. Klima aldaketa eta generoa nire betiko borroka esparru nagusiak izan dira eta ekimen honetan biak bat eginik datoz. Pentsatu nuen ez nuela haiek nahi zuten soslaia, gehienak zientzia ikertzaileak zirelako, baina hala ere, azken unean bidali nuen proposamena, eta hara non, onartu ninduten.

Proiektuaren aurkezpenean sustatzaileek oso ideia polita proposatu zuten. Bideo batean, galdetzen zieten neska eta emakumeei ea zer egingen luketen beren ama gaixorik balego, eta hori lortzen zuten Ama Lurrarekin eta egiten ari garen triskantzekin. Oso hunkigarria izan zen.

Joan den urteko otsailean formakuntza epea hasi zen. Hainbat lan egin dugu urtean zehar taldeka, munduko hamaika tokitan zeuden lagunekin elkarlanean. Dokumentazio pila bat irakurri dugu eta lanak hiru gai nagusiren inguruan egin ditugu: emakumeen li-

dergoa, estrategia, eta ikusgarritasuna. Oso lan trinkoa izan da. Gogorra, baina oso polita.

Espedizioan zer egin behar duzue?

Lau asteko bidaia da. Otsailaren 13an aterata eta martxoaren 13an itzuli. Argentinan itsasontzia hartu eta bi egunez Drake itsasarte zeharkatuko dugu. Esan digute mila kilometroko bidaia garbigailuan egitea bezalako delat. Izugarria. Biodramina baino dezente gogorragoa den botika hartu beharko dugula esan digute, eutsi ahal izateko. Gero zientzia estazioak bisitatuko ditugu. Ez da kirol espedizioa, bisita zientifikoa dira. Errusia, Ameriketako Estatu Batuak, Britainia Handia, Txina eta Argentinaren estazioak ezagutuko ditugu. Antartika laborategi erraldoi moduko bat da, oso egokia berotze globalaren ondorioak aztertzeko. Planetako ur erre-serba handiena da eta kutsadurarik edo distortsiorik sortzen ahal duen beste faktorerik ez dago.

Acciona enpresak nola lagundu dizu proiektu honetan?

Ekimenean parte hartzeko 16.000 dolar ordaindu behar da, kostu errearen erdia. Acciona Energiak bere gain hartu zuen gastu hori proiektuaren filosofia bat datorrelako enpresaren helburuekin. Horrez gain, aseguruak, bidaiak eta materiala ordaindu behar nituen nire poltsikotik, baina abenduan Acciona markak Acciona Team sortzea erabaki zuen, espedizioan parte hartu behar dugun partaideekin. Ekipamendua lortzen lagundu digu eta beste partaideei ordaintzeko falta zitzaiena ere jarri du. Gainera, Ternua eta Lorpen enpresek material izugarri ona eman digute eta eskerrak eman behar dizkiet, noski.

Zer iruditzen zaizu klima aldaketa ukatzen duen AEBetako presidente Trumpen jarrera?

Gero eta eszeptiko gutxiago dago. Taldekide batzuek diote jendea konbentzitu behar dugula, baina nik uste hori jada ez dela beharrezkoa. Sinetsi nahi dutenek sinesten dute eta nahi ez dutenek ez. Nik jada ez dut pedagogiarik egiten, propaganda baizik.

Aldaketaren ondorioak begi bista-koak dira. Azken 50 urteetako CO2 emisioetan bada goranzko ikaragarri bat, lehenago inoiz existitu ez dena. Deser-

Greba feminista

“Martxoaren 8an Antartikan ez dakit zer egingen dugun, baina zerbait bai, seguru. Dena den, nik uste dut greba azaroaren 3an hasi beharko genukeela eta urtarrilaren 1era arte iraun. Nafarroan emakumeok lan berdinarengatik %18 gutxiago kobratzen dugu, beraz, kontuak aterata, azaroaren 3ra arte baino ez genuke egin beharko lan”.

Emakumeak, klima aldaketaren biktimak

“Berotze globalaren ondorioak gehien pairatzen dituztenak emakume pobreak dira, haiek bizi baitira lurrari lotuak eta oso baliabide gutxirekin. Adibidez, uholdeetan gehien hiltzen direnak emakumeak dira askok eta askok igerian ez dakitelako”.

Berdintasunaren alde

“Berdintasuna lortzeko emakumeen aldeko bazterketa positiboa egin behar da. Agian, hasieran, pribilegioak galtzeak gizon batzuei beldurra emanen die, baina onuragarria izanen da guztientzat. Gainera, pribilegio horiek gizon batzuentzat karga modukoak ere badira, asko eskatzen baitzaie soilik gizona izateagatik”.



tifikazioa, euriteak, uholdeak, lehortegero eta latzagoak, espezie inbaditzaile pila bat zabaltzen eta ekosistema asko erabat suntsitzen... Ondorioak atzerazekinak dira eta horregatik orain da uea gure jokamoldeak aldatzeko, eskuetatik gehiago ihes egin ez dezan. Gauza asko galdu dira dagoeneko eta ez ditugu inoiz berreskuratuko.

Adibidez?

Basamortu bihurtutako eremuak, esate baterako. Txinan azken 50 urteotan 25.000 kilometro koadro gehiago dute mortu. Iberiar Penintsularen azaleraren %80 deserta izateko arriskuan dago, 2016an Espainiako Estatuko Inguru-

men Ministerioak argitara emandako txosten baten arabera. Lehengo euri kopuruak berreskuratzea oso zaila da, ezinezkoa dela ez esateagatik.

Eta Antartikan?

Izotz hormak urtzea da berotze orokorraren ondorio nagusia. Glaziarrak ere desagertzen ari dira. Izotza desagertuz gero munduaren topografia alda liteke, izan ere lur zati batzuk ur azpian gertuko lirakeke eta beste batzuk oso bero bilakatuko lirakeke. Itsas mailaren igotzea kezagarria gertatzen ari da, itsas eta haize korronteak desberdinak dira, itsas ekosistemak aldatzen dira eta denok pairatzen ditugu ondorioak.

Eta hemen, Euskal Herrian?

Hemen udak luzeagoak dira, lehortegatzak ditugu eta espezie inbaditzaileak ugaltu dira. Panpa-lezka edo panpa-belarra (*Cortaderia selloana*) da inbaditzaileetako bat. Jatorriz Hego Amerikakoa da belar altu hori, Panpan eta Patagonian bizi da eta Euskal Herriko kostaldean gero eta gehiago ikus daiteke. Bertako landare asko kaltetzen ditu. Zergatik dabil hain emakume gutxi zientzian eta teknologian?

Betidanik emakumeak ikusezinak izan dira alor horietan eta gaur egun berdin jarraitzen dugu. Komunikabideetan agertzen diren adituak, adibidez, ia guztiak gizasemeak dira. Testuliburue-

tan ere oso gutxi ageri dira. Nobel sarietan soilik %3 izan dira emakumeentzat zientzian. Horregatik guztiaren-gatik erreferente falta izugarria dago eta horrek ondorio zuzena du neskenengan, ikasketak aukeratzekoan. Askotan neskei sinetsarazten diete txarragoak direla zientzia eta matematiketan. Errealitatea ez da horrelakoa. Emaitzak eta notak hor daude kontra-koa erakutsiz.

Bestalde, zientzia eta teknologia karrera oso gogorra da. "Publish or perish" argitaratu edo hil, esaten da, adierazteko etengabe zure ikerketen berri ematen aritu behar duzula eta ez da amatasunarekin bateragarria. Emakume askok lehia profesionala alde batera uzten dute eta beste askok ama izatea geroko uzten dute lanean toki on bat erdietsi arte. Unibertsitatean emakume askotxo dago, batez ere hainbat gradutan, biologian, adibidez, baina gero ardura postuetara ez dira iristen.

Arrakala handiak daude, eta handiena zaintzak eragiten duena da. Emakumeok Antartikara joan ahal izateko gizonak eraman behar dituzte haurrak medikuarenera, kartetan aritu aitona-rekin, erostera joan eta arropa garbitu behar dute. Zaintza lanak eta etxeko lanak partekatzen ez diren bitartean ezinezkoa da emakumeok aukera berdina izatea gure garapen profesionalan.

Enpresa munduan, ni nagoen alorean, adibidez, gizon batek haurra iza-



tea gauza ona da enpresarentzat, horrek esan nahi baitu bere egoera pertsonala egonkorragoa izan dela, ez dela auskalo nora joanen, zentratua egonen dela enpresan. Aldiz, emakume batek umea duenean arazoa dator: orain bere lehentasunak aldatuko dira, ezin izango da beti libre egon, nahasiago ibiliko da, lanetik atera behar izanen du askotan... Arrakala horiek guztiak, eta soldatetan daudenak, desagertzen ez diren arte emakumeok etorkizun zaila dugu.

Soluziobidea?

Aldatu maila guztietan. Gizonezkoek ohartu behar dute pribilegioak galdu behar dituztela eta enpresek neurri batzuk bai ala bai hartu behar dituzte bateragarritasun erreala lortu ahal izateko. Gobernu mailan lege egokiak behar dira emakumeen garapen profesionala sustatzeko. Ameriketako Estatu Batuetako

ko proiektu kide batek esaten zidan han kongresu batzuetan haurrak zaintzeko zerbitzuak dituztela, inor etxean gelditu ez dadin arrazoi horregatik. Eta zenbait kasutan bazterketa positiboa egin beharko da emakumeen alde.

Desberdina litzateke mundu parekidea?

Nik uste dut baietz. Askoz lasaiagoa litzateke. Gerra, gorroto eta muga arazo askoz gutxiago legoke. Kooperazio eta komunikazio gehiago legoke, zalantzarik gabe. ■

» "Euskal Herrian udak luzeagoak dira, lehorte latzak ditugu eta espezie inbaditzaileak ugaltu dira"

LUAarkitektoak

hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
etxebizitza proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Tel 948 13 26 97
Río Arga Kalea 28, 31014 Iruña lua@luark.com

ogiaren egia

Galparsoro
OKINDEGIA

Ogi biologikoak
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak
Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

MARCOS
okindegia

Benetako
aitzinako ogia

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

Inperialismoaren maskarak erori dira Sirian

Wesley Clark jeneralak kontatua du 1991n Paul Wolfowitzekin izan zuen elkarrizketa, politika militarerako Defentsa idazkariordearekin. Clarkek esan zion: “Nahiko pozik egon behar duzu armadak *Desert Storm* operazioan izan duen portaerarekin”; (1991n AEBek Iraken aurka egin zuten eraso izan zen). Wolfowitzen erantzuna epela izan zen: “Tira bai, baina ez, egia esan Saddam Hussein ez libratu behar ginen eta ez dugu egin. Hala ere, gauza bat ikasi dugu, gure armada erabili dezakegu Ekialde Ertainean eta sobietarrek ez gaituzte geratuko. Hurrengo superpotentzia agertu aurretik, bost eta hamar urte artean dauzkagu sobietarren bezero diren erregimenak garbitzeko: Siria, Iran eta Irak”.

2001ean Clark jeneralari esan zioten zazpi herrialde hartu behar zituztela bost urtetan: Afganistan, Irak, Somalia, Sudan, Libano, Siria eta Iran. Ordurako Dick Cheney defentsa idazkariaren ondokoa zen Wolfowitz. Planak ordea, aldrebestu egin ziren. 2003ko Iraken aurkako gerra, nazioarteko legedia hautsiz Mendebaldeko herrialdeen arteko kontsentsua apurtu eta mundu osoan sekulako protestak eragin zituen gerraren aurka.

AEBek estrategia berrantolatu behar izan zuten. Taktika berria 1996an Richard Perlek (defentsa idazkariordea izandakoa) gidaturiko ikerketa talde batek Benjamin Netanyahuarentzat eginitako *A Clean Break: A New Strategy for Securing the Realm* dokumentuan agertzen da: Ekialde Hurbileko erregimenak ezegonkortzeko estrategia proposatzen zen, adibidez, era esplizituan esaten zen Israelek Siria eraso behar zuela proxyen bitartez.

Delegaturiko gerraren estrategia lehenengo aldiz Libian jarri zen martxan eta ondoren Sirian. Gaur frogatzen asko ditugu jakiteko muturreko islamis-



Asier Blas

EHU-KO IRAKASLEA

@AxiBM

Delegaturiko gerraren estrategia lehenengo aldiz Libian jarri zen martxan eta ondoren Sirian. Gaur frogatzen asko ditugu jakiteko muturreko islamistak nagusiki AEBek, Turkiak eta Israelek babestu eta armatu zituztela. ISISek aldiz, Saudi Arabiaren eta Qatarren zuzeneko laguntza izan du, eta AEBen, Israelen eta Turkiaren kolaborazioa momentu batean edo bestean

tak nagusiki AEBek, Turkiak eta Israelek babestu eta armatu zituztela. ISISek aldiz, Saudi Arabiaren eta Qatarren zuzeneko laguntza izan du, eta AEBen, Israelen eta Turkiaren kolaborazioa momentu batean edo bestean. Bestalde, nazioarteko legedia hautsiz, besteak

beste, Frantzia, AEB, Israel, Turkia eta Australiak bonbardaketak egin dituzte Sirian. Damaskok akabatua zirudien, baina hor agertu ziren Iran eta batez ere, Errusia, biak nazioarteko legeak errespetatuz. Errusiaren esku-hartzeak gerraren norabidea aldatu zuen Damaskoren alde. Ondorioz, ezinbestean oinak lurrian (*boots on the ground*) jarri behar izan dituzte siriar gobernuko etsaiek. Une honetan hiru armada daude Siriako soberania hausten: AEB, Turkia eta Israelgoa. Hiru herrialdeek base militarrik dituzte herrialdean eta gerra operazioak egiten dituzte, argi geratuz hasieratik non dagoen Siriako gerraren iturburua: esku-hartze imperialista.

Turkiak Afrineko kurduak erasotzen ditu bere ejertzitoarekin eta muturreko islamistekin, azken hauek Damaskoren aurkako gerra jarraitzen dute. Israelek ia egunero erasotzen du Siria, AEBek berriki ehun siriar soldadu baino gehiago hil dituzte eta bitartean, herrialdean bere base militarrik zabaltzen jarraitzen du kurduen laguntza eta babesarekin (10 urterako akordioa sinatu dute). Horregatik, kurduen eta iparramerikarren arteko aliantzak gutxi gorabehera. Siriako lurraldearen herena kontrolatzen du. Lur eremu horretan kurduak ez diren eskualde eta herri asko daude, baina Washingtonek begi puntuan jarri zituen ura, gasa eta petrolioak dutelako, lehengai klabeak Siria ekonomikoki ez bideragarri egiteko. Azkenean, AEBek 2003an Iraken egin zutena beste modura batera egiten ari da Sirian, baina oraingoz emaitza oso antzekoekin: herrialde bat suntsitu du, bere lehengaiak kontrolpean hartu eta gutxienez dozena erdi bat base militar jarri ditu. Hori gutxi balitz, hori guztia egin du garai batean gerraren aurka agertu ziren askoren konplizitate aktiboarekin edo isiltasunarekin. ■

Leterenak

Robert Lowell (1917-1967), poeta estatubatuar bat izan zen. Amerikako Estatu Batuetako Liburuaren Sari Nazionala (*National Book Award*, 1960, Life Studies obrarengatik) eta Pulitzer Saria, poesian (1947an eta 1974an), irabazi zituen. Bakezalea zelako zaigu ezaguna: kontzientzia arrazoiak alegatu zituen II. Munduko Gerrara ez joateko (eta kartzelara joan zen aldi batez), eta Vietnamgo gerraren aurka idatzi zuen.

1960an, hau da, sari inportante hura jaso berri, *Imitations* liburu argitaratu zuen. Liburu hartan, Homero, Safo, Villon, Leopardi, Rilke, Pasternak, Baudelaire eta Rimbaud "itzuli" zituen, eta komillak erabili ditugu zeren (Lowellen hitzak dira), "ingelese biaz idazten saiatu naiz, nire autoreek, gaur egun eta Ameriketara bizi izatera, agian egingo zuketena egiten saiatuz".

Kritikak inolako eragozpenik gabe hartu zuen *Imitations*, eta inork ez zuen ezbaian jarri lanaren originaltasuna.

Ezaguna da horrek, eta horrek bezalakoek, agerian jartzen duten paradoxa: Lowell egin zuen hori bera Periko Smith egin izan balu (eta harrapatu izan balute), orduan zer?

Erantzuna ere ezaguna da: Periko Smith plagiataileentzako sutean erreko zuketena.



Jon Alonso

IDAZLEA

Eztabaida, literaturari dagokionez, hor kokatzen da: zergatik manipulatu dezake idazle aitortu batek literatur tradizioa, arazorik gabe, eta ezezagun batek egiten badu, aldiz, zigor kodea aplikatzen diote?

Eztabaida, literaturari dagokionez, hor kokatzen da: zergatik manipulatu dezake (itzuli, kopiatu) idazle aitortu batek literatur tradizioa, arazorik gabe, eta ezezagun batek egiten badu, aldiz, zigor kodea aplikatzen diote?

Bernardo Atxagaren plagiatzeko metodo famatuan ere, "izen pixka bat izatea"

zen arauetako bat. Eztabaida ezaguna da eta denetariko iritziak daude.

Ordea, Lowell ez zuen ezkutatu maite zituen poetak itzultzen ari zela, eta idazle moduan zeukan eskumena erabili zuen argi eta garbi.

Idazleek usu erabili dute beren eskumen edo pribilegio hori era probokatzailan, eztabaidak pizteko, kontraesanak azpimarratzeko, inori arpa jotzeko...

Ez dirudi horrelakoa zenik Xabier Leteren asmoa. Nekez epaituko dut nik zein zen asmo hori, baina konforme egongo zarete nirekin, gure ezjakintasunaz barre egitea edo eztabaida piztea izan bazen, kale egin zuela, zeharo.

Orduan? Zergatik jokatu zuen Letek Periko Smith balitz bezala? Horixe da eztabaida, jada literarioa ez dena, beselakoa baizik... Morala, ausaz?

Baina kontuz, hildakoez gaizki esaka aritzea oso itsusia omen da, eta isil nadin.

Beraz, hildakoen gainean gaizki esaka aritzerik ez denez, bizien gainean gaizki esaka aritzera pasatuko naiz; *status quo*-aren zarta jotzaile horien guztien gainean, salatuaz gogoeta egin ordez, salatzailearen aurka aritu diren horien gainean. Neoliberalismoa ez da nagusitzen konplizerik gabe, literaturan ere ez. ■

Sekretua, anonimatu eta gardentasuna



Rosa M.
Martín-Sabarís
EHU-KO IRAKASLEA

Adierazpen askatasuna, informazio eskubidea. Halako hitzak ahoskatu genituen 1983ko apirilaren 18an UPV/EHUko Informazio Fakultatean egin genuen batzar jendetsuan. 19 urte nituen. Xabier Sánchez Erauskin kazetaria kartzelara zihoan bi artikulua idazteagatik: *ETAko presoen bi arreba* eta erregeak egindako bisitari buruzko *El paseillo y la espantá*. Bestelako garaiak ziren.

Adierazpen askatasuna. Halako hitzak Barakaldoko pankarta batean 2015eko maiatzean Kaiet Prieto atxilotu zutenean. Hitz berberak 2018ko otsailean absolbitu dutenean. “Zure borroka, gure eredu” twitterren argitaratzea, sinatuta, hori delitua. Bestelako garaiak dira.

PPk sare sozialetako anonimatu galarazteko neurriak hartu nahi ditu. Mehatxuak, erasoak eta inpunitatea ekiditeko. Egia da, eta ni ados nago. Erraza baita profil faltsutik gorrotoa sustatzea, eta homofobia, arrazismoa edota indarkeria matxista. Ala bestelako mezuak debekatzea da helburua?

Informazio eskubidea. Halako argudioa erabili da *Ugarteko* ezizeneko ertzain-buruak jarritako salaketaren epaiketan. Eta epaileak informazio askatasuna lehenetsi du, agintari horren ohorea eta intimitatearen ginetik. Jakiteko eskubidea dugulako.

Seguritate zibernetikoaren izenean iragarri du RTVE korporazioak bere langileen posta elektronikoa miatzeko eskubidea duela. Haserre bizia sortarazi du kazetarien artean. Sekretu profesio-

sionalaren aurkako atentatua dela diote. Kazetari batek bere “iturriak” babestu behar omen dituela. Iturriak? Zeintzuk dira ditugun albisteen iturriak? Gobernuak, erakundeak, sindikatuak, seguritate-indarrak, adituak... Zenbat aldiz erabili du kazetari batek babestu beharreko iturri bat? Sekretu profesionala da kazetariena? Eta militarrena? Ertzainena ez al da sekretu profesionala? Gobernuko presidentearena?

Halaxe, sekretutzat, jo du Espainiako Gobernuak Arabia Saudirekin defentsa alorrean duen akordioaren inguruko informazioa, elkarren babesa izango dute. Bien bitartean, Arantxa Tapia sailburuak iragarri du gero eta garrantzi handiagoa duela Euskadirentzat monarkia absolutu horren merkatuak.

Euskadik *Transparency International España* delako ebaluazioan lehen postua lortu du 2012, 2014 eta 2016. urteetan. Nork nori nor? Noiz? Non? Zertarako eta zergatik da Arabia Saudi Euskadirentzat merkatu estrategikoa?

Irekia eta gardena behar du gaurko komunikazioak. Norabide bakarrek komunikazioak eta norabide bakarrek eskubideek ez dute gaur zentzurik. Whatsappen bezala, nik zurea ikusi ahal izateko, zuk nirea ikusteko eskubidea izan behar duzu. Besterekikotasunean oinarritutako komunikazioa. Alex de la Iglasiaren azken filmak, *Ezezagun perfektuak*, erakutsi digu zer behar dugun: informazioa eta sekretuak partekatzeak sor dezakeen akelarre garbitzailea. ■

Gorputz ez-onartuak



Leire Narbaiza
Arizmendi
IRAKASLEA
@txargain

Euskaldun askok Goya sarien gala adi-adi ikusi genuen *Handia* filmagatik. Gala hartan emakumeen eskubideen aldarria egingo zela iragarri ziguten, andreon ikusgarritasuna errebendikatu, feminismoa ahotan hartu.

Baina itxurakeria baino ez zen egon; izan ere, hainbat emakumeren gorputzak izan ziren ekitaldi guztian zehar mintzagai. Andra batzuen loditasuna, hain zuzen ere. Andrazko batek aitatu zuen filma errodututakoan baino argalago zegoela. Beste batek hirugarren bati esan zion dietista bera, eta ez oso abila, kontratatu zutela. Zuzendari sarituak beste zuzendari gizon bati erantzun bere ama

harena baino argalagoa zela... Horrela, jo-puntuak beti gizenak, andrazko potoloak. Eta tristeena, sarrri emakumeen ahoetatik entzun beharra.

Gorputz ez-normatiboak. 90-60-90 neurriak ez dituztenak, kanon estetiko zurruntan sartzen ez direnak. Txistea egiteko, barre egiteko. Latza da, gero, beti izatea gorputz femeninoa borroka zela. Gizon gizenak egon arren, inork ez zituen-eta ahotan hartu.

Eskerrak Eneko Sagardoyk saria jasotzean lezioa eman ziguna, identitate ez-onartuei, eta gorputz arraroei eskaini zielako. Biba gorputz guztiak, gizen zein argal. Izan gaitezen handiak. ■

Bilbo bere saltsan egosten da

Berrikuntzaren eredutzat aurkeztua izan den Bilbok dar-dar egin du azkenaldi honetan. Zein izan da lurrikara horren arrazoia? Buztinezko oinak ote dauzka Bilbo berriaren mitoak? Kezka zabaldu da herritarren zein agintarien artean, eta oraindik erantzunik aurkitzen ez duten galderak hasi dira plazaratzen. Jakina da erantzunetan asmatzeko, ezinbestekoa dela aurretik galdera egokiak plazaratzea.

Oharkabean bezala gertatu zen guttia: iragan abenduaren 23an, goizalde, Ibon Urrengoetxea zornotzarra hila gertatu zen Bilbo erdian, Areatzako zubian bertan, ustez lapurretarako eraso baten ondorioz; handik gutxira Abandoko geltoki atarian, gazte bati eraso egin zioten era basatian, eta begi bat galdu zuen ondorioz; urtarrilaren 18an, azkenik, Otxarkoaga auzoko etxebizitzan Luzia eta Rafael 87 urteko senar-emazteak erail zituzten, ustezko lapurretaren asmoak ere esplikatu ezin dezakeen basakeria erabiliz. Gertaera horiei lotuta direlakoan atxilotu dituzten guztiak 14-16 urte bitarteko gazteak izan dira, ardura penalik leporatzeko gazteegiak, alegia. Horrek ekarri du soka luzea, batez ere halako gertaerak direnean berehala zigorraren premia aldarrikatzen dutenak beraien egarrria ezin aseta aurkitu direlako. Zer egin orduan? Zigorren bidetik ez bada, nola erantzun gertaera larrioi? Seguru gaude Bilbon? Polizia gehiago beharko da? Baina zertarako polizia ugalduta, lehenago ere oso ugaria denean?

Puntu horretan sortu da ezinegona, zalantzan ikusi delako azken urteetan agintarien eta apologisten aldetik horrenbeste laudatu izan den Bilbo berriaren eredia. Puntu horretan kokatzen da, beraz, benetakako galderak plazaratzeko abiagunea. Bilbo berri honek agertzen dituen arrakasta faktore hain nabarmenduak baino harago, badu



Karmelo Landa

HISTORIALARIA
@karmelolanda

Bilbo berri honek agertzen dituen arrakasta faktore hain nabarmenduak baino harago, badu kalteturik? Nortzuk, nola eta zergatik dira eredu honetatik baztertuak eta zokoratuak? Bilbo berriaren eredu hau ondo bideratua da? Zuzendu daitezke arazo hauek, eredia bera sakon aldatu gabe, ala aldiz, beste norabide bat eman behar zaio etorkizuneko hiri demokratikoari?

kalteturik? Nortzuk, nola eta zergatik dira eredu honetatik baztertuak eta zokoratuak? Bilbo berriaren eredu hau ondo bideratua da? Zuzendu daitezke arazo hauek, eredia bera sakon aldatu gabe, ala aldiz, beste norabide bat eman behar zaio etorkizuneko hiri demokratikoari?

Galderok plazaratzea komeni da, bai, baina ezin pentsa erantzunak errazak eta berehalakoak izango direnik. Baina bide egokian abiatzeko, agian lagungarri gerta daiteke Bilboren ibilbideari apur bat sakonago erreparatu eta sarien zein goraiapamenean liluran ez mozkortzea.

Bilboren izaera proteikoa hortxe dago: zenbat aldiz berritu du bere burua historian zehar, arrantzale eta itsastarren herrixka izatetik, merkataria eta artisauen herri; industriaguna mega-garatu ondoren, eta gainbeheratik birsortu den turismo eta zerbitzuen metropoli izan nahi duena orain; kasu bakoitzean hiriaren zentro eta periferiak ere aldatu dira, baina kasu guztietan ertzak eta bazterrak sortuz; zeintzuk dira gaur egungo bazterrak? Ze ezaugarri dute? Oraingo eredu global hau, unibertsaltasunaren izenean Londresen, Shanghain edo Berlinen distiratsu erakusten dena, Bilboko bertoko eta are Euskal Herriko biztanleak asetzen ditu? Ikusi ere ikusten ditu?

Iñaki Azkuna alkate ohiak Shanghai-ko nazioarteko erakusketara Bilboren irudia eraman nahi izan zuenean, koadro handi luzea aukeratu zuen: Abandoibarra-Guggenheim ingurua nabarmentzen zen batez ere hiri osoa agertzen zuen mihisean. Nabarmendu bai, eraikuntza modernoak, baina ez zen bizidun bakar bat ageri koadro hartan.

Post-Azkuna garaian dago Bilbo. Gauzak zer diren, oraingo alkatea azken hilabeteetan Azkunaren komunikazio eredu eta modu berbera kalkatzen ari zela iruditu zitzaigun, Azkunaren estiloa birsortu nahian zebilela... harik eta azken gertakarien zurrunbiloa lehertu den arte. Orain galdera irekiak hor daude, nork erantzungo. ■

Hitzordua Zokoan

«Henri Dunant Centre zentroak bidalitako nazioarteko adituak zorrotz bete zituen emandako argibideak. Zokoan kokatutako jatetxe batetik abiatu beharra zuen, hondartzaren aurretik igaro, eta aldameneko hilerrira jo, itsas gaineko muinoan barrena. Historiaz betetako toki ederra da. Comète sareko funtsezko zutabea izan zen Kattalin Agirrerren (1897-1992), hilobian, plakak honela dio: “Les combattants volontaires de la Résistance, a leur camarade”. Ondoren, kanposantuko behealdeko bi ateetako batetik sartu behar zuen, eta kanposantua goialdeko irteerarantz gurutzatu. Handik une oro txoferra zuen zelatan, hura eramateko zain zegoena. Hondartzatik eta inguruetatik, eskarmentu handiko militanteek, bainulari eta turisten artean nahastuta, kontrazaintza-lanetan ziharduten, bideratzailea bakar-bakarrik zetorrela ziurtatzeko. Une kritikoa zen, hitzordua zapuztuz gero ibilbide-orria oso kaltetuta gera zitekeelako, eta gainera Rodríguez Zapateroren gobernuak bere amaiera ere iragarria zuen...»



3 hizkuntzetan



Euskal gatazkari aurrez aurre
heltzeko modua aldatu zuen
prozesu historiko bati buruzko
azterketarik zorrotzena


Eskura ezazu **martxoaren 3an GARA** rekin

Harpidedunek 18€ Eskariak otsailaren 20an jasotako emailaren bidez.

Elkarlanean:



GARA mediabask.



* Hedatu SL publizitate enpresaren bitartez, errenta aitopenari buruzko informazioa tokiko hedabideetan banatu zuen Aldundiak.

** Tokikom elkarteko kide diren Gipuzkoako 14 hedabideen artean banatutakoa.

HEDABIDEETAN ERAGITEKO TRESNA POLITIKOA

Publizitate instituzionalen eta babesletzen bidez, zein komunikabidek jasotzen du diru gehien eta zein dira bazterrean geratzen direnak? Zein dira banaketarako irizpideak? Gipuzkoako Aldundiaren kasua aztertu du ARGIAk, datu publikoak ematen hasi baita –bera da bakarra-. Aperitibo gisa: diru gehien 'El Diario Vasco' egunkariari eman zion iaz ere Aldundiak, 399.075 euro; eta konparaziorako, ARGIAri 4.293, ia ehun aldiz gutxiago. Herritarren ezagutzatik urrun, diru publikotik ehunka milaka euro mugitzen dituen sistema opakua dago atzean.




Axier Lopez
@axierL



Lander Arbelaitz Mitxelena
@larbelaitz

2016 2017



Euskal Herriko erakunde publikoek urtero milioiak banatzen dituzte hedabideen artean, instituzioek sortutako informazioa zabaltzearen truke (publizitatea) edo instituzioek egoki irizten dioten zenbait lan diru publikoz babes-tearen truk (babesletza).

Gipuzkoako Aldundiak zer banaketa eta nola egiten duen azaldu asmo du erreportaje honek. Infografia nagusia eskuragarri dago instituzio honek 2016an eta 2017an egin duen publizitate eta babesletza banaketa. Datu horiek lehen aldiz jarri dituzte herri-tarrentzat eskuragarri eta Gipuzkoako Aldundia gai honetan erakunderik gardenena da gaur gaurkoz. Datu guztiak publikoak dira, *Gipuzkoa Irekia* web-gunean daude eskuragarri. Bizkaian, Araban eta Nafarroan gai honetan herritarrek egun ezin dute jakin erakundeok zenbat diru publiko bideratzen duten hedabideetara publizitate publikoaren bitartez. Diru partidarik handienak mugitzen dituzten udal-tan ere ez dituzte datuak eskuragarri jartzen. Hori da, erreportajea Gipuzkoako datuetan bakarrik oinarritzeko arrazoia.

Publizitate eta babesletza instituzionalaren banaketari dagozkion gastuak bi multzo nagusitan daude: *Publizitate kanpainetan egindako gastuak* eta *Kontratu txikiak* ataletan. Hainbat as- teko lana izan da dokumentuak aztertu eta kopuru batzuetara heltzea. Kasu batzuetan kontratuen kontzeptuak zehaztasunik gabeak dira, iragarkiaren eta kontratuaren datak ez dira azal- tzen eta azpikontraten bitartez eginda- ko banaketa errealak ez dira agertzen. Bestelako kontratu motak ere agertzen dira dokumentuetan (komunikazio zerbitzuak, adibidez), baina kontuan hartu ditugun bakarrak hedabideetan jarritako publizitate edo babesletzekin lotura zuzena duten kontratuak dira. Dokumentu publikoetan gastuak ban- nan-banan identifikatu eta EH Bilduk Batzar Nagusietan eskatutako doku- mentuekin konparatuz osatu dugu ze- rrenda. Halere, aurrez aipatutako arra- zoiengatik, baliteke zenbait kasutan kopurua guztiz zehatza ez izatea eta beraz, ahalik eta zuzenena den argaz- kia aurkeztu nahi dugu. Azkenik, gure emaitzak hainbat hedabideren lehen eskuko informazioarekin kontrastatu ditugu aurkeztu aurretik.

‘El Diario Vasco’ jaun eta jabe

El Diario Vasco egunkariak gutxienez 399.075 euro jaso zituen 2017an, Gipuzkoako Aldundiaren publizitate ins- tituzionalen eta kontratuen bidez. Urtez urte diru publiko gehien jasotzen duen egunkaria da Gipuzkoan. Orotara, lur- rralde honetan Vocento taldeko *El Dia- rio Vasco* eta Teledonostik 463.992 euro jaso dituzte. Bigarren lekuan Noticias taldea osatzen duten Noticias de Gipuz- koak eta Onda Vasca irratia 277.219 euro jaso dute; EiTBko hedabide publi- koei 178.000 euro ordaindu dizkiete eta SER taldea osatzen duten irratiei 96.000. EiTB elebiduna kontatu gabe, beste hirurek ia osorik gaztelaniaz in- formatzen dute.

Gipuzkoako Aldundiak 2017an pu- blizitate eta babesletzara bideratuta- ko diruaren %69 nagusiki gaztelaniaz aritzen diren hedabideentzat izan da, beste %13a diru publikoz finantzatuta- ko EiTBko irrati eta telebista elebidunei eman die, eta %18a euskarazko hedabi- deei. Euskal hedabideen multzoan iaz tokiko hedabideek jaso dute diru gehien 112.535 euro, euskarazko hedabideeta- ra bideratutako diruaren %45a. Konpa- raziorako, euskarazko hedabide guztiek 2017an jaso duten diru guztia batuta baino gehiago jaso du Noticias Taldeko bi hedabideek bakarrik.

Irizpide zaharkitu eta lausoak

Gipuzkoako Aldundiak publizitate ins- tituzionala zer irizpideren arabera ba- natu behar duen 1994ko apirilaren 6ko Foru Arauak zehazten du. Komunika- bideen panorama eta informatzeko bi- tartekoak nabarmen aldatu badira ere, orain dela 24 urte onartutako testua da erreferentzia bakarra. Arauak gabezia nabarmena du: prentsa idatzia bakarrik aipatzen du, albo batera lagaz, irratia, telebista edota Internet. Are gehiago, araua zein komunikabideri bideratuta dagoen zehazten duen lehen artikulua dio, “Gipuzkoako egunkariez” ari direla, ez besterik. Hala ere, hau izan da azken urteetako diru banaketak justifikatzeko erreferentzia.

Foru Arauaren asmo orokorrak on- dorengoak dira: “Euskal hiritarrek [sic] hizkuntza dela eta diskriminatuak ez izatea, informazio eskubidea eta infor- mazio aniztasuna bermatzea, propor- tionaltasuna, hedabideen arteko lehia librea errespetatzearen, eta eraginkor-

tasuna”. Horretarako, “arbitraltasuna alde batera utzi eta malgutasunez joka- tu” behar dela azpimarratzen du.

Urteko aurrekontua lau multzotan ba- natzen du arauak. Publizitate instituzio- nalaren %8 “euskarazko egunkarirako ziurtatutako da” –arteak *Euskaldunon Egunkaria*, egun *Berria*– eta “euskaraz- ko egunkari bat baino gehiago argita- ratuko zatekeen egunean, antzeko tra- tamendua edo berdina” eman beharko litzaiokeela dio. Aurrekontuaren %37 “Gipuzkoan argitaratzen diren egun- karien artean berdintasunez” bana- tu behar dela agintzen du. Beste %37 “hedapen-zifraren” arabera partitzeko zehazten du. Eta gainerako %18a “bes- te hedabideen” artean erabiltzeko dela dio, publizitatearen “lurralde eremua eta hartzaileak” kontuan hartuz.

Gipuzkoako Aldundiko Komunikazio- rako zuzendari nagusi Elene Arrazola Sotori kontsulta egin dio ARGIAk eta dio publizitatea banatzeko Foru Araua aintzat hartzen dutela. “Aniztasunari errespetua eta [hedabideen] dibertsita- te horrekiko zintzotasuna dugu irizpi- de nagusizat, foru arauak jaso bezala”. Halere, Foru Arauak aipatzen ez dituen beste irizpide batzuk ere badarabiltzate, bere hitzetan ondoriozta daitekeenez. Batetik, iragarki instituzionalak eta diru laguntzat banatzeko orduan, euskaraz- ko hedabideen artean “tokiko komuni- kabideei tratamendu berezia” ematen dietela azpimarratu du. Eta bestetik, “audientziei erreparatuz, lurraldeko in- formazioa espresuki eskaintzen duten bertako hedabide edo edizioei lehenta- suna” ematen diete.

Ez dute Foru Araua betetzen

Hainbat daturi erreparatuta, agerikoa da Foru Araua ez duela betetzen Gipuz- koako Aldundiak. *Berriak* ez du aurre- kontuaren %8a jasotzen –2017an %3a jaso zuen–, aurrekontuaren %37a ez da berdintasunez banatzen Gipuzkoan argitaratzen diren hedabide guztien ar- tean. Dozena batetik gora dira 2017an 1.000 euro baino gutxiago jaso zutenak. Horrez gain, irismenaren arabera bana- tu beharreko gainerako %37ari dago- kionez, datuak ez datoz bat. Adibidez, Madrilen egoitza duen *Oficina de Jus- tificación de la Difusión* enpresak –OJD gisa ezaguna– ematen dituen datuen arabera, 2010etik 2017ra *El Diario Vas- coren* ale salmenta gainbehera etenga-

bean dator. 2010ean egunero 71.948 ale saltzen zituen batzaz beste, eta 2017an 48.949, aipatu iturriaren arabera. Publizitate sarrerak aldiz gora egin du, adibidez 2017an 2016an baino 100.000 euro gehiago eman dizkio Aldundiak publizitatean eta babesletzetan: %25eko igotzea.


Diru publikoia banatzeko hedabideen irismena irizpide gisa hartuz gero, Noticias de Gipuzkoa egunkariaren kasuak hainbat zalantza jartzen du mahai gainean. 2013an egunero batzaz beste 5.411 aleren salmenta aitortu zion OJD-k eta 2016an 4.291 alekoa. Salmenta horrekin jaso duen diru kopuruak agerian uzten du partiketa ez dela era proportzionalan egiten: *El Diario Vasco*k 2017an 399.075 euro jaso ditu 48.949 ale salduta (2016ko datua), eta *Noticias de Gipuzko*ak 4.291 alerekin 166.219 euro eskuratu baititu.

Espainiako CIS soziologia ikerketa zentroak emandako 2016ko datuek ere hala berresten dute. *Garari* batzaz beste egunero 35.000 irakurle kalkulatu dizkio eta ondoren dator *Berria*, 29.000 irakurleekin; *Noticias de Gipuzkoa* egunkariaren irakurleak 26.000 dira CISen arabera 2016an. Beste era batera esanda, *Noticias de Gipuzko*ak jaso duen dirua, gehien bat, irismenak justifikatzen badu, banaketa proportzionala eginez, *Gara* eta *Berria* egunkariak egun jasotzen dutena baino hamarnaka milaka euro gehiago jaso behar lukete.


CISen datuek agerian utzi dute Noticias taldeko Onda Vasca jasotako publizitatea eta "irismena"-ren arteko arrakala ere. Erakunde horren arabera, 2016an Gipuzkoan gehien entzundako irratien artean bederatzigarrena izan zen Onda Vasca. 2017an banatutako publizitateari dagokionez, aldiz, Onda Vasca diru gehiago jaso du Onda Cero edo Cadena 100 kateek baino, bi aipatzearen.

Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako datuetan publizitate gastuak sailka agertzen dira. Diputatu Nagusiaren saila da, alde handiz, diru gehien bideratzen duena, baina gainerako sailek ere publizitate kanpainak bideratzen dituzte. Datuek erakusten dute, sailaren buru alderdi bat edo beste izateak aldatetarako dakartzala. PSE-EEren esku dauden sailetan SER katearen presentzia handiagoa da eta oro har euskarazko

HIZKUNTZEN ARABERAKO BANAKETA 2017an



EUSKARAZKO HEDABIDEEN BANAKETA



Ondorengo hedabideei 1.000 eurotik behera eman dizkie zuzenean Aldundiak 2016an eta 2017an: Barren, Noaual, Karkara, Segura Irratia, Maxixatzen, The Balde, Naturaren Ahotza, Eta Kitto eta Uztarría.

* Hedatu SL publizitate enpresaren bitartez, errenta aitorenari buruzko informazioa tokiko hedabideetan banatu zuen Aldundiak.

** Tokikom elkarteko kide diren Gipuzkoako 14 hedabideen artean banatutakoa.

GAINONTZEKO INSTITUZIOAK GEHITU BEHAR

Gipuzkoako Aldundiak publizitate eta babesletzen bidez hedabideetara bideratzen duen diru kopuru hau lagin bat besterik ez da. Argazki osoa izateko, kontutan hartu behar da gainerako instituzio publikoen publizitatek datorren dirua -irizpide berdinak erabiltzen dituzten gainerako aldundiena-, ETS moduko enpresa publiko askorena, udalena, diru publiko asko jasotzen duten zenbait enpresa, Eusko Jaurlaritzarena, eta zenbait hedabideren kasuan Espainiako Gobernuaren eta bere agindupeko erakundeena.

Hala, Euskal Herrian gehien saltzen diren egunkari, telebista eta irratiek osatzen duten enpresa-taldeek milioiak jasotzen dituzte urtero funts publikotik, agintari publikoek emandako publizitate, babesletza, lan teknikoen eta diru laguntzen bitartez herritarrek jakin gabe.

hedabideena urriagoa da gainerakoetan baino. *El Diario Vasco* sail guztietan da diru gehien jasotzen duena, alde handiz. Proporzionaltasuna?

“Beharrezkoa da arauak informaziorako eskubidea bermatzen duela eta informazio aniztasuna nahiz elkarren arteko lehiaren legea errespetatzen dituela gauzatzea”. Esaldi korapilatsu hori dio hitzez hitz Foru Arauaren hitzaurreak. Datuek erakusten dutenez, ordea, banaketan alde nabarmenak daude. 2017an hiru komunikazio-enpresak aurrekontu guztiaren %62 jaso baitute, publizitate eta babesletza instituzional guztiaren ia bi herenak: Vocentok %33 -*El Diario Vasco* eta Teledonosti-, Noticias taldeak %16 -*Noticias de Gipuzkoa* eta Onda Vasca- eta EITB-k %13. Gai nontzeko %38a 48 hedabideren artean banatu dute.

2016an ere antzekoa izan zen banaketa. Hiru talde horiek aurrekontu guz-

tiaren %61 bereganatu zuten: Vocentok %28, Noticias taldeak %18 eta EITBk %15.

Status quo indartzeko irismena

Publizitatearen banaketan hedabideen “irismen datuak” pisu erabakiorra du Aldundiarentzat. Interneten etorrerarekin, ordea, hedabideen irismen erreala kuantifikatzea oso zaila da: zeinek zenbatzen du hedabideak Whatsapp gisako sare pribatu, Twitter, Facebook edo Youtuber bidez zenbat jenderengana heltzen diren? OJD erakunde espainiarraren datuak eta webguneetako *Google Analytics*-en estatistikak baino ez dituzte aintzat hartzen “irismena” kalkulatzeko. Beraz, hedabide batzuen indargunea diren sare sozialen zabal-kundea zenbatu gabe uzten dute erakunde publikoek. Horrez gain, hedabide bakoitzaren baliabide ekonomikoak eta iraganean egindako bidea ere ez dira

kontutan hartzen. Galdera batzuekin hobeto ulertzen da azken hau.

Diru publikoa jasotzeko, maila berean izan behar al dira multinazionalen jabetza duten hedabideak (Vocentoren kasuan adibidez, BBVA bankua da akziodun nagusia) eta jabetza langileena den komunikabideak, ARGIA kasu? Lehia desorekatua da berez, banketxe handi baten babesa daukan hedabidearen eta bere baliabideekin irauten duenaren artean. Lehenbizikoak bermatuta dauka egunero kaleratzea, inbertsoreek haien interesentzat komenigarri jotzen baldin badute. Bigarrenak aldiz, publikatzen duen zenbaki bakoitzarentzat finantzazioa lortu behar du. Erakundeek pluraltasun informatiboa babestu behar badute, zer zentzu dauka gaur egungo publizitate-politikak?

Hedabideen herentzia historikoa ere ez da kontutan hartzen dirua banatzeko orduan. Nahiz eta ezinbestekoa den

DV-KO EGURALDIAREN ORRIA BABESTEN DU ALDUNDIAK

El Diario Vasco egunkariak 2017an jaso dituen 399.075 euroen artean, eguraldiaren informazioa daraman *El Tiempo Hoy* orriaren babesletza dago. 4.800 euroko hiru ordainketa egin zizkion Aldundiak Vocentoko egunkariari, orotara 14.400 euro 2016an eta beste hainbeste 2017an.



HONDARTZETAKO INFORMAZIOA

SER irrati kateari (Radio Eibar, Radio Irun eta Radio San Sebastian batuta) 21.681 euro eman zizkion 2017an Gipuzkoako Aldundiak hondartzetako informazioa eskaintzeagatik. Onda Vasca irratian, hondartzen informazio atalaren babesletzagatik 3.025 euroko hiru ordainketa egin zituen, 9.075 euro gutzira.

egungo “irismen gaitasunak” ulertzeko. *El Diario Vasco* Gipuzkoan eta *El Correo* Bizkaian eta Araban, eta azken finean, Vocentoren egunkari erregionalak Espainiako estatuko hainbat probintzian duten hegemonia eta boterea ezin dira ulertu, hedabide hauek frankismoan jokatu zuten rola eta pilatu zizuten pribilegioak kontuan izan gabe.

Irismena kalkulatzeko arazoak albo batera utzi gabe, irismena banaketarako irizpide nagusi bilakatzea bide eraginkorra da hedabideen status quoa betikotzeko, baita gaztelaniaren hegemonia ere euskararen kaltetan. Sare sozialetan hainbat hedabidek egiten duten lana ez kontuan hartuz, hainbat medio handiri egiten diete mesede, eta beste batzuei kalte.

Borondatea salgai

Hedabide askoren biziraupenerako ezinbesteko diru-sarerria ekonomikoa

da publizitatea, eta gehien bat, babesletza eta publizitate publikoa. Edozein demokraziatan oso tentuz kontrolatu beharreko eremua da botere politikoa- ren eta enpresa pribatuen arteko harreman ekonomikoa. Eta informazio askatasuna bermatu behar duten hedabideen kasuan, are gehiago. Kazetaritza kazetaritza izan dadin ezinbesteko duen independentzia –ekonomiko eta politikoa– ezbaian jar dezakeen faktorea baita.

“Dirua modu arbitrarioan banatzen baduzu borondatea erosten ari zara, informazio eskubideari kalte egiten ari zara. Adierazpen askatasuna nabarmen kaltetzen da, prentsa askatasunarekin lotuta ez badao; eta prentsa askatasuna ezin da guztiz garatu joko arau ekitatiborik gabe”. *Eldiario.es* hedabideko zuzendari Ignacio Escolar Espainiako Estatuko panorama mediatikoaz mintzo da Amnesty Internationalek antolatuta-



GEHIGARRIEN PAGOTXA

Gipuzkoako Aldundiak 2017an zortzi gehigarri argitaratu ditu babesletza kontzeptupean. Bat *Sud Ouest* egunkarian jarri zuten kultura eta turismoari buruz (1.180 euro) eta beste zazpi *El Diario Vasco*n. Merkeena Bioterrari buruzkoa izan zen 3.630 euroko kostarekin, Idiazabal gaztari buruzkoa 3.640; hortik aurrera osasunari buruzkoa 4.235, zibersegurtasunaz bat 4.950 eta beste bat 9.570 euroan. Nabarmen garestiagoak dira Ingurumen sailak lotutakoak, erraustegiaren publi-erreportajeekin: 17.545 euro kostatu zituen batek eta besteak 21.671 euro.

ko jardunaldi batzuetan. “Prentsa plurala daukagu, beren iritzi eta ikuspegiak partekatzen dituen prentsa aurki dezakete ia espainiar guztiek; baina ez daukaguna da jokozelai justurik prentsa-arentzat”, zioen. *Eldiario.es*-en 2017ko iraileko kronikan jaso zuten, “aktore politiko eta ekonomikoek informazioaren gainean duten kontrolari erreferentzia eginez adierazi zuen hori. Zehazki, esaldi horrekin publizitate instituzionalari egiten zion erreferentzia, irizpide arbitrario eta opakuekin egiten den diru publikoaren banaketari”.

Arlo honetan Euskal Herrian oraindik bide luzea dago egiteko. Publizitatearen banaketari lotutako gardentasun faltari irizpideen zehaztasunik eza gehitu behar diogu. Bi gaiak dira erraz konpontzekoak, alderdi politikoen aldetik borondatea baldin badago eta hedabideok diru publikoaren erabileraz gertuko jarraipe- na eskaintzen badiegu herritarrei. ■

Bestelako zaintza egiturak

Tribuan hazten

Bi ama, eta haien seme-alaben zaintzan inplikaturik dauden hainbat pertsona batu zaizkigu mahaiaren bueltan Hernaniko Plaza Feministan. Ezberdintasunak, asko eta askotarikoak. Abiapuntutzat, ordea, ezaugarri komun bat: lagunek lagun haurrak zaintzen dituzte, ez familia biologiko loturarik ez dirurik tartean izan gabe.



Z. Oleaga

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Itziar Arruarte Santa Kruz hernaniarrak 31 urte ditu. “Betidanik” desio izan du ama izatea, bikotea izan edo ez. Hiru urte eta erdi dira Peru eta Liher biki bidez erditu zenetik. Lagunen sarea du egunerokotasunerako euskarri nagusi, eta sare horren hiru hari sendo dira 31 urteko Maialen Apezetxea Lujanbio, 22 urte dituen Kattalin Artola Vazquez eta 28ko Miren Zubillaga Idarreta.

Irantzu Jauregi Artola 44 urteko andoaindarra da, 5 eta 9 urteko Kima eta Araithen ama. Lehendabizikoa, Arai, lagun batekin batera izatea erabaki zuen ondo moldatuko zirela bazekitelako, “aita hemen eta presente du. Baina ez gara bikote. Kimaren aita urruti bizi da eta horrexegatik praktikan haren laguntza handirik gabe hazi beharko zuela jakinik erabaki zuen haurra izatea. Txikien amonak -Irantzuren amak-, Araithen aitak eta 59 urteko Gorka Setien Berakoetxea lagunak hartzen dute zaintzaren ardura, Irantzurekin batera.

Seme-alaben zaintza nola antolatzen duzue? galderari, “inprobisatuz” erantzun dio Irantzuk, “biziraunez” Itziarrek. Elkarrizketari barre-argara partekatuarekin eman diote hasiera. Txikien joan-etorriek, jolasek eta algarek tesuinguru aproposa sortu dute.

“Koadrila handia gara” hasi du kontaketa Itziarrek, “jaio zirenetik laguntza handia behar izan dut, eta ikusi naute, ba, kalera atera eta bi umeak negarrez. Koadrilan ere besoetan hartu dituzten lehenengo umeak dira, eta beti daude laguntzeko prest”. Maialen hasi zitzaion laguntzen, adiskidearen lan-kargaz arduratuta. Ostiralero hurbiltzen zitzaion etxera, “gaua pasatzera eta umeekin laguntzera”. Mirenek, hura ikusi eta berak ere bere burua eskaintzea erabaki zuen. “Eta gero garaian garaikora joan gara egokitzen, intentsitate handiagoz aritzen ginen hasieran, orain gutxiago. Oporretara-eta elkarrekin joaten gara. Eta Itziarrek parranda egiten duenean edo zer edo zer duenean gelditzen gara, baina ez dugu astean egun bat ezarritan”. Kattalin hilabetez egon zen bikiak zaintzen diru-truk, “baina hortik aurrera jada ez, ze umeekin maitemintzen zara eta...”. Egun, bera da Itziarri aldizka umeak uzteko erregutzen diona. “Ni gurasoekin bizi naiz eta etxera lotara ere askotan etortzen dira, hirurok egiten dugu lo ohe berean, eta nire gurasoak ere maitemintzen daude”.

Gorka pixkana joan da Irantzuren alaben bizitzan eta beharretan inplikatzeko. “Irantzu eta biok lagunak gara. Lehen-

dabizikoa izan zuenean hitz egin genuen eta pixka bat lagundu nion umearekin”. Bigarrena heldu zenerako, “engantxatuta” zegoen jada. Kimaz etxean erditu zenean, ondo-ondoan zuen Gorka Irantzuk. Egun, “bi orduko lanaldi kontratua daukat nik, bi umeak zaindu eta bazkaltzen emateko. Eta hortik aurrerako ordu guztiak, dezente direnak, lagun bezala laguntzen diot, eguna pasa dezaket umeekin”. Astean hiru egunez egiten du lo hiruen etxean. Umeen zaintzan ez ezik, etxeko lanetan ere hartzen ditu zereginak, erosketak edo garbiketa kasu. “Alegia, dirutan ordain ezina” azpimarratu du Irantzuk.

Hautu politikoa edo beharra?

Hautu politikotik eta beharretik, bietatik du Irantzuk eta Itziarrek eraiki dituzten zaintza moduek. Itziarrek familiarekin aurretik hitz egin zuen. “Eskatu nuen laguntza etxean eta baietz esan zidaten”. Bere amaren sostengua du, baina hasieran uste baino mugatua goa. Ahizpek ere ume gehiago dituzte, egunak 24 ordu. Lagunekin aurretik eta argiago mintzatu ez izanaz damu da. Irantzuk, hasieratik hitz egin zuen Gorkarekin. Ama zaintzan inplikatu edo ez aspaldiko korapiloa du: “Gure ama oso



umezalea da eta dituen iloba bakarrak dira. Hasieran esaten nuen 'ba, amona gabe moldatuko naiz', zeren oso kontu karka iruditzen zitzaidan. Eta ondoren pentsatu izan dut 'eta zergatik amona ez?'. Beti izan dut konfliktua. Zer pentsa ematen dit, zergatik da aurrerakoiagoa lagunekin antolatzea amonarekin baino, bere aukera haurren zaintzan hain aktiboki parte hartzea bada?''

Zaintzaileek laguna lagundu nahia izan zuten abiapuntua. Bilakaera nabarmendu dute, ordea. Batetik, lana gozamen ere bihurtzen da eta maitasunari egiten dio leku, umeak norberaren bizitzan egotea behar propio bilakatu arte. Bestetik, bizipenek, bideak berak politizatu ditu. Ideologikoki jada politikotzat zutena gorputzetik pasatzeak,

» **Konfiantza da zaintza saretuago hauen oinarria**

» **Zaintza sareak urriak badira, are urriagoak gizonak haietan**

beste izate bat ematen die ideiei. Gorkak horrela dio: "Ez zen nire hautu politikoa izan, baina hala izaten bukatu du. Izan dut eboluzio bat, gauza askotaz konturatzaren zara zaintza lanetan eta etxeko-

tan. Esaterako, ez dela posible lan hori ordaindua ez izatea. Zeren lana da, eta txiringitoak funtzionatzen du doakoa delako".

Konfiantza da zaintza saretuago hauen oinarria. Denek ahoratzen dute, norabide eta zentzu ezberdinetan. Amek, lagunen irizpideetan duten konfiantza erabatekoa; lagunek, amengandik jasotzen dutena zein eurek erabakiak hartzeko denboraren poderioz hartutakoa. Adiskidetasuna eta laguntza boluntarioa dira zaintzaren erregaia, ez dirua. Guraso-zaintzaile hierarkia zirintzen eta familia eredu auzitan jartzen laguntzen du horrek. Zaintzen dituzten umeentzako, Miren eta Maialen "izebak" dira, Gorka, "aita-laguna" (umek asmatutako hitza).



OPIL OKINDEGIA GOZOTEGIA

Iñaki Deuna, z/g
☎ 94 683 30 60

Artabide, 24
☎ 94 683 19 14

ONDARROA (BIZKAIA)

Argazki distortsionatua

Lau zaintzaileetatik bat gizonezkoa dugu erreportajearen. Errealitatearekin bat ez datorren argazkia. Zaintza sareak urriak badira, are urriagoak gizonak haietan. Emakume bezala hezitakoentzako esparru naturalizatua da zaintza. Ikasketak hezkuntzan egin baditu ere, “diru-iturri bezala zaintza lanetan aritu den gizonik ez dut ezagutzen” dio Kattalinek. Eta Maialenek gehitu: “Eta ez daude prest lan hori dohainik egiteko. Gu ohituta gaude ‘maitasunez’ lan egitera, umeez maiteminduak gaudelako...”.

Gutxitan aritu, eta aritzean puxtarri extrak jaso nonahitik. Ikusgarritasun mailan, errekonozimenduan... Itziarren iritziz, “badago gizonentzako plus bat, ez dagokien zer edo zer egiten ari direlako”. Irantzuk bere amaren esanak aletzen ditu: “‘Gorka bezalakorik ez dago’. Emakumea balitz ez luke berbera esango, gizona delako eta zaintzara eskainia dagoelako deitzen dio atentzioa”. Mirenek uste du bere koadrilak baduela errekonozimendua, “baina mutilak bagina esango ligukete, ‘jo, ze inplikatuak, eta ze mutil jatorrak eta...’”. Maialenek osatu du esaldia: “Mutil feminista gisa hartuko gintuzkete”. Aldiz, lan berberak ez du emakume bat feminista bilakatzen.

Tribuaren alde

Zaintzarako sareen alde, tribuaren alde egin beharra dago. Argi dute denek. Ez soilik umeentzako, baita adinduentzako edo dibertsitate funtzionalak dituzten pertsonen zaintzarako ere. Guztion elkar-zaintzarako, oro har. “Izan daitezke modu batekoak edo bestekoak, baina sareak behar ditugu” dio Irantzuk. Maialenek gehitu duen bezala, “oso autonomoak garela sinetsita gauden arren, interdependentek” baikara. “Alztoa izateko jaio gara”, ekarri du gogora Gorkak Maialen Lujanbioren bertsoa, “eta ezkerre, honetaz guztiaz ohartu ere egin gabe”.

Zailtasunak ez dira gutxi, ordea. Gure bizi-ohiturek ez dute laguntzen. Lagunen umeen zaintzari denbora bat ematea, hautua da. Eta, hautua egiteko aukera bera ere, ez du edonork. Maialenek, Mirenek, Kattalinek eta Gorkak, esaterako, ez dute seme-alaba propiorik, ez beste inoren zaintza haien kargu. Jendarte eredia ere kontrako noranzkoan ari da: komunitate naturalak gero eta urriagoak dira; enpleguari ordu gehiago

eskaintzen diogu; haurrak jabetza pribatu bezala bizi ditugu; lanaren prekarietatea areagotu egin da, mugikortasuna biderkatu, eta guztiok gaude “aldi baterako”, pasadan. Etxe-bizitzen ereduak, eta horietan sortzen ditugun bizitza-unitate txiki eta isolatuak, egituraz mugatzen dute tribuaren aukera. Zentzu askotan, tribura “joan” baino, “buelatu” behar garela iritzi diote solaskideek. Sareek eta komunitateak, berritzailetik baino, akaso, zaharretik dutela gehiago.

» Zaintzarako sareen alde, tribuaren alde egin beharra dago. Ez soilik umeentzako, baita adinduentzako edo dibertsitate funtzionalak dituzten pertsonen zaintzarako ere. Guztion elkar-zaintzarako

Onurak, aldiz, zailtasunak baino gehiago direla uste dute. “Ama bakar” esan ohi diegu Itziarrek eta Irantzuk egin bezala seme-alabak bikoterik gabe izatea erabaki dutenei. Termino desegokia, inondik ere: biek ala biek ikusi dituzte bikote askotako emakumeak zaintza lanetan eurrak baino dezente bakarrago, itota. Txikien zaintza saretuak guztiei egiten die mesede. Umeez eredu gehiago dituzte inguruan, eta helduek kalitate handiagoko denbora eskaini diezaioke hurrei. Batzuek zein besteek gehiago gozatzen eta ikasten dute. Zaintza partekatua eta saretuak bizi-eredu zoriontsuago eta biziduzkoagorako lurzoru aproposa dira.

Itziarrek eta Irantzuk zaintza eredia ez ezik, amatasunaren beste ohikeria asko apurtzen dituzte. Baina edonorentzako dira zaintza sareak interesgarri eta gauzagarri. “Bikote heterosexual ‘normalek’ ere osatu beharko lituzkete”, diosku Kattalinek. Horra seikotearen gonbitea, eta hona Itziarren azken gomendioa, bizitutako esperientzietatik: “Argi hitz egin, alde zurretik, sarean parte hartuko duten guztiekin. Nola osatuko dugun sarea, bakoitzak zer egingo duen horren barruan”. ■

**Zure jendea,
zure hedabidea,
zure iragarkia.**

Jarri publizitatea hemen

ARGIA

943 371 545
publiz@argia.eus
www.argia.eus/tarifak

Jon Sarasua, Garabide elkarteko kidea

“Europar denek kooperaziorako proiektuak finantzatzen badituzte ere, inor ez da ari hizkuntza lankidetzan”

Euskarak bizi duen korapiloa kontu unibertsala dela dio Jon Sarasuak (Aretxabaleta, Gipuzkoa, 1966). Unibertsitateko idazlea, irakaslea eta hizkuntza lankidetzara xede duen Garabide elkarteko kidea da. Hizkuntzen biziberritzeaz bezainbatean, munduko hizkuntzen plazan euskarak zer irakatsi eta zer ikasi franko duela dio.



Miel A. Elustondo

Hizkuntza lankidetzara, aski gauza etereoa, askoren ustez.

Idea azaltzen ez da zaila. Ibilbide bat badugu eginga Euskal Herrian, hizkuntza berritzeko lanean. Horrek, beste aurpegi bat ere badu, hau da, nazioartekoa, kanpoko beste zenbait esperientziarekiko loturarena. Garapenerako kooperazioa ulertzeko modu jakin bat lotu dakiok horri, asistentzialismotik urruntzen dena, hemendik hara dirua bidaltzeaz ari ez dena, kooperazio modu horren argi-ilunetan sartu gabe esanda, errespetuz. Hizkuntza lankidetzara jakintza-fluxuak sortzetik abiatzen da. Egoera asimétrikoak bizi baditugu ere, ezagutza eta esperientzia partekatzeetik abiatzen da kooperazio hau. Munduko herriei begira jarriz gero, hizkuntzen gainbehera handia gertatzen ari da, kontinente guztietan ere. Hizkuntza horietako batzuetan galdezka ari dira, galga non jarri, biziberritzeko prozesua nondik hasi... Komunitate horietara



ZALDI ERO

ko batzuek gobernu mailako boterea dute, beste batzuek ez, eta galdekizun zehatzak eginez hurbildu izan zaizkigu, ikastolak nola sortu genituen, hizkuntza estandarren gaineko eztabaidak nola bideratu genituen, helduen euskalduntzea nola abiarazi genuen, interneten zertan garen, eta beste, jakin nahirik. Garabideren intuizioa horixe izan zen, lankidetzarako lan-arloa zegoela.

Hizkuntza lankidetzara ez da aintzat hartzen.

Lankidetzaren lerro nagusia ekonomia-ri lotua izan da, pobrezia sozioekono-

mikoari kontra egitea, eskolak jasotzea, errepideak egitea... Herri horiek badi-tuzte bestelako ametsak ere, hizkuntzaren biziberritzeari lotutakoak, eta lankidetzara bultzatzekotan hortik ere jo beharko genuke, beraiek ideiak eskatzen ari baitira. Bestalde, herri moduan nazioarteko garapenerako politika bat izan behar badugu, ondo legoke geure buruari galdetzea zer garapen politika landu beharko genukeen, zer dugun partekatzeke dena delako herri horiekin, zertan aberats dezakegun elkar. Galdera egin orduko dator erantzun bat ere: euskararen biziberritzean

egin dugun bide herrera partekatzea, besteak beste. Uste dugu kooperazio politika batek galdera hori egin behar duela. Jaurlaritzak, diputazioek, udalak... ehunka proiektu laguntzen dituzte diruz Latinoamerikan eta bestetan. Eta diru asko da. Lankidetzaren atal bat hizkuntza lankidetzatik bideratu beharko litzatekeela uste dugu, Europa osoan denek kooperaziorako proiektuak finantzatzeko badituzte ere, inor ez delako ari lankidetzaren mota honetan. Kooperazio sozioekonomikoan milaka agentzia eta GKE ari dira. Hizkuntzak biziberritzeko esperientziak partekatzen, inor ez. Horretan hasi da Garabide. Hala ere, aitortu behar da egiten dugun apurra tanta bat dela itsasoan. Hizkuntzen galera-erritmoa, une honetan, itzela da.

Hizkuntza lankidetzan ari zaretela, zer partekatzen duzue, zuzen?

Hasteko, ikasi. Egun, entzun, ezagutu. Urteak behar dira entzuten eta ulertzen, leku bakoitzean bere koloreak ditu egoerak. Partekatzeke daukaguna da euskararen 60 urteko astinaldi-aro hau, bere sakoneko egitura eta adarrak. Euskararen biziberritze prozesuaren hasierak, estrategiak, lorpenak, mugak eta porrotak. Corpusean, hezkuntzan, hedabideetan, helduen alfabetatzean, kultur sorkuntzan, enpresen euskalduntzean, administrazioan eta familia transmisioan eta abarretan dauden galdegaia. Urrian izan duguna bezalako ikastaldian, adibidez egun batean goaz Goiena komunikazio taldea zertan ari den ikustera, eta hurrengoan orain dela hiru urte sortutako Biriaturako ikastolako gela bisitatzera eta hango guraso-irakasleekin goiza pasatzera. Gure gauza txiki, handi eta ertainak, ikasketa-metodo zirkular baten barruan. Kontua ez da euskararen bidea eredu hartzea. Gauza hauetan ez dago eredurik, eta herri bakoitzaren bidea errepikaezina da. Esan dezagun inspirazioak sortzen direla. Laburbilduz, minbiziaren aurkako terapia esperimental bat partekatzen ari gara, hau da, gure hiztun-komunitateak azkeneko urteetan egin duen bidea. Besterik da gu geu minbiziaren gainditzen ari garen edo ez, gure arteko debata da hori. Minbiziak jota dauden eta terapia arloan pista bila datozkigun beste zenbait komunitarekin partekatzen dugun egin dugun bidea.

ZUBI LANEAN

“Garabideren planteamendua ez da Garabideko egitea hizkuntza-lankidetzaren hau. Beste batzuen arteko zubi izatea baizik, ahal den neurrian. Alegia, adibidez, helduen irakaskuntzarako metodoari buruzko eskea identifikatzen badugu Wallmapun, kontua da hemengo euskaltegiak ditutako edo arituak haiekin harremanetan jartzea, eta loturak egitea. Hala, denborarekin sare bat sortu nahi dugu, edo sistemaxo bat sortzen ari gara, Euskal Herriaren euskalgintzako erakundeak, eskolak, unibertsitateko ikasleak, irakasleak, jubilatutako, udalak eta abar martxan jartzen dituen kooperazio horri begira, eta Hegoaldeko herrietako eragileen artean beste hainbeste”.

ARANTZA

“GKEen sisteman sartu nahi izan dugu muturra, finantzabideei dagokienez. Gure lana finantzatzeko garapen kooperaziorako dauden diruetatik jo behar genuela pentsatu genuen, ez euskalgintzarako diruetatik, baina teknikoki neketsua da. Dena dela, eskertzekoa hainbat erakunde ematen ari diren laguntza. Arantza badugu, jasotzen ditugun eskarien eta erantzuteko dugun gaitasunaren artean leizea dagoelako. Proposamenez gainezka gaude, erantzuteko modurik ez dugula esanez ari gara askori. Elkarte txikia da Garabide, hiruzpalau teknikari, hitzarmen batzuk eta borondatezko sare bat. Hori bai, hazten ari da”.

Minbizi hitza aditu eta ikaratu egin ohi gara.

Zer gaitzekin egin liteke analogia hizkuntza minorizatuen iraungitze honetan? Galdera egin izan dugu truke-lan honetan. Datozkigun komunitate asko bizi duten arazoaren larria bistaritzen laguntzen digu. Gainbehera handia da, baina, bestalde, paradoxa ere bada, gobernuak inoiz baino gehiago ari baitira esanez hizkuntza indigenok legez babestuta daudela. Eta egia da, komatxo artean bada ere, legez babestuta daude, inoiz ez bezala, herrialde indigena

zenbaitetan hezkuntza elebidunak 30 urte bete ditu... Azken 30 urteetan izan dute, adibidez kontinente amerindiarreko hizkuntzek, azken mendeetako lege-babesik handiena, aldekotan diskurtsiborik handiena, inoiz baino “gauza gehiago” egiten ari dira, eta aldi berean, galera inoiz baino handiagoa da. Paradoxa hau ulertzea ez da zaila, baina bere barrunbeak miatzea da kontua. Diagnostiko gordina egitea da lehen pausoa.

Trukea du oinarri Garabidek. Zer jasotzen du zuen erakundeak hiztun komunitate indigenetatik?

Haiek ez dira gu bezain hizkuntzazentrista. Kultur fluxu handiago baten barruan kokatzen dute hizkuntza. Horretan interpelatzen gaituzte, aipatzen baitute hizkuntza aurrera atera nahian kulturaren beste hainbat arlo bazterrerara utzi ditugula. Beste alde batetik, haiekin egonda ahaleginaren espiritua berritzen zaigu, hemen batzuetan nahiko behea jota dagoen gogoia. Haien begiratuak, bestetik, geure buruak esplikatzen behartzen gaitu, eta, esaterako, nik neuk hobeto ulertzen dut euskararen bidea, hona datozkigun indigenei esker. Haien aurrean agertzeko, informazioa birformulatu eta birruleru behar izan dugu, sintesiak egin, gure zuhaitzaren egitura eta gakoak ikertu. Ez da nire kasua bakarrik. Hemen igarotzen duten aldian, komunitate indigenetako kideek hainbat erakunde eta arlo bisitatzeko dituzte, eta leku horietako solaskideek ere beren buruari buruzko begiratuak doitzeko aukera dute. Eta azkenik, gu beste komunitate batzuetako inspirazio izan gaitzkeela ikusteak, eta kontaktu horretan sortzen den elektrizitateak, ematen digu indarra guri ere komunitate moduan. Hori sumatu izan dut unibertsitateko gazteen artean, adibidez. Badu inpaktu bat hemen. Kooperazio honek era askotara elikatzen gaituela uste dut, edo hori sentitzen dugu honetan ari garenok.

Hamar urte baino gehiago lanean Garabide, ikusi duzue zuen lanaren ondorioak?

Kooperazioan apur bat jarduna naiz Garabide baino lehen ere, eta egia esan, gutxitan ikusi dut hizkuntza lankidetzaren bezainbesteko inpaktu azkarra. Dena dela, inpaktu hori oso gauza erlatiboa da, ereitetik asko dauka honek. Formazioan, adibidez, hona datozkigunak beren herrialdera itzuli, lanean jardun eta



hemendik hamar edo hogei urtera zein uzta etorriko den, auskalo. Erlatibizazio horren barruan, adibide batzuk jarzearren, Ekuadorren, esate baterako, hizkuntzen legea onartuko dela dirudi, lehen aldiz. Eta legea bere horretan onartzen bada, Latinoamerikako hizkuntza legerik ausartena edo eragileena izateko formulazioa du. Lege hori hemen formazioa jasotako baten burugogorkeriak bultzatu du, Ekuadorreko parlamentuko kideengana joz eta temoso saiatuta, Euskal Herrian jasotako astinduagatik berak dioenez. Edo maputxeen artean gertatzen ari diren gauza batzuen ernamuina, edo Mexikoko Cue-

“Haiek ez dira gu bezain hizkuntza-zentrista. Hizkuntza aurrera atera nahian kulturaren beste hainbat arlo baztertera utzi ditugula diote”.

ARGAZKIA: GARABIDE

tzalango nahuatlen murgiltze eredua, edo hango kooperatiba mugimenduko enpresa komunitarioetan urratu litekeen erabilera-plana, ziurrenik kontinentean lehenbizikoa, edo Kolonbiako Caucako biziberritze prozesu integral xamar baten hasiera...

Bistakoa da eragina.

Erreserba askorekin diogu. Ez dakigu ekimen horiek nora iritsiko diren, eta

ez dago esaterik ere: “Hau guregatik da!”. Baliabide batzuk erabiltzen ditugu, eta badagokigu gure ahaleginen inpaktua apur bat ebaluatzea ere. Ematen du baietz, merezi duela, hango hainbat aurrerapen txikiren ernamuinean baitago Garabideren lana. Egia esan, gure kezka da hizkuntza lankidetzak kalitatez egitea, ondo egitea, ez egitea bakarrik. Erraza da hitzarmen halako bat sinatzea, harreman bat egitea. Aldiz, urteak behar dira problematikak behar bezala ulertzeko, jakintza landu behar da, asko entzun eta behartu behar da, konfiantza eman eta irabazi behar da, arriskutsua da aholkuak erraz ematea. ■

GREBA MUGAGABEAN

ALFAKO SIRENA ISILDU EZ DADIN

“Badakigu itxi egingo dutela, baina duintasunagatik gaude hemen”. Unai Arosak 24 urte daramatza Eibarko Alfa enpresan lanean. Azken bi hilabetetan ez da lantokira joan, ez behintzat lanera, protesta egitera baizik. Bera bezala, enpresako langileen erdia baino gehiago greban da. Lan baldintzez eta enpresaren arduradunek hartutako erabaki jakin batzuez nazkatuta, planto egitea erabaki dute. Baina nola iritsi da herri baten oinarri eta sostengu izan den enpresa historikoa egoera horretara?



Miren Osa Galdona

@Mirentx_U

ARGAZKIA: ALFAKO LANGILE GREBALARIAK

Musika bafleak, mahai luze bat, aulkiak eta pankartak baino ez daude Untzaga plaza erdian jarri duten informazio karpagorriaren azpian. Hotza eta euria eginagatik ere, bertan biltzen dira astean hirutan greban dauden langileak. “Pertsonalki oso gogorra ari da izaten –dio Arosak–, apenas egiten dugu lo eta diru sarrerek geroz eta urriagoak dira”. Hala ere bai berak eta bai ondoan duen Joseba Apellaniz lankideak argi dute “kalean borrokatzen” jarraitu behar dutela. Greba egiten ari ez direnekin harremana erabat hoztu da ordea: “Amorru gehien ematen duena da gure borrokaren ondorioz zerbait lortzen badugu, guztion mesederako izango dela eta gu hemen gauden bitartean beraiek ez daudela gure ondoan”.

Duela bost urte 800 langile ziren, egun 200 inguru. Pertsonal murrizketaz gain, lan baldintzek ere beherantz egin dute Alfa Precision Casting (APC) enpresan. Alfa Taldeko lantoki handiena da eta langileen erdiak baino gehiagok egiten du lan hor.

Bilakaera hori ez da zoriz gertatu. Apellanizek 20 urte daramatza lante-

gian eta azken hamar urtetan Alfa indarrak gabe nola geratu den ikusi du: “Baldintza txarretan bada ere, isil-isilik aurrera egin izan dugu beti. Soldatak igotzeko dirurik ez dagoela esan digute eta hala ere lanean jarraitu dugu”. Arosak bat egin du lankidearekin: “Hamar urte daramatzagu soldata berarekin, hori gutxi ez eta %10 jaitsi ziguten, eta ez genuen ezer esan”.

Jon Baranguan LABeko bozeramaileen kalkuluen arabera, baina, langileen eros-ahalmena egiaz %23 gutxiago da egun. “2008tik soldata bera dute baina gizaratean dena gorantz doa”. Horren aurrean hainbat proposamen eskaini izan dizkiote enpresari, baina “dirurik ez dagoela esan izan digute behin eta berriz, eta guztiok noranzko berdinean egin behar dugula arraun enpresa aurrera ateratzeko. Esandakoa egin dugu baina hala ere ez dugu etekinik jaso inoiz”, dio Arosak amorruari ezin eutsita.

Sindikatu delegatuek enpresaren egoeraz informazioa eskatu izan dute behin baino gehiagotan: kontabilitatea, irabaziak, informazio orokorra... Horretan ere enpresaren erantzuna eze-



koa izan da euren esanetan. Hala, “beste bide batzuk” hartu behar izan zituzten: “Merkataritza Erregistrora joan ginen sindikatu gisa laneko kontuak ateratzera –dio Baranguanek–. Hor hartu genuen lehen ezustekoa: ohartu ginen hiru zuzendarien artean 2.289.000 euro banatu zituztela”. Sindikatuek urteko 400.000 euroko inbertsioa eskatu izan dute langileen baldintzak hobetzeko, baina dirurik ez dagoela argudiatu duten bitartean, 800.000 euro “poltsikoratu” ditu bakoitzak.

Horren berri izan bezain laster langileen batzarrean jakinarazi zuten. Albeste jasotzea “mugarria” izan da Arosa eta Apellanizen iritzian: “Guztioi esfortzua eskatu eta dirutza hori euren artean banatzen dute? Onartezina da. Greba egiteko gakoa izan da”.

Enpresako arduradunek bilera egiteko proposamena onartu zuten: bost urteren ostean izan zuten lehen hartu emana izan zen. “Elkarren artean diru kantitate hori banatu izana onartu zuten, inongo lotsarik gabe”. Enpresa mantentzeko inbertsioak egiteko prest agertu ziren enpresaburuak: lanpos-



Kaleratze plana "diskriminatzailea" dela salatu dute langileek, hasiera batean botako dituzten 51 langileetatik 48 grebaliarik dira.

tu guztiei eutsi, pertsonala handitzeko kontratazio berriak egin eta baldintzak hobetzeko hitza eman zuten.

Aldiz, ekaitza berehala iritsi zen beste behin Eibarrera: hitzarmen berrirako 40 langile kaleratu eta mekanizazioko sekzio guztia ixteko asmoa izan zen enpresaren proposamena. "Nahikoa zela esan genuen. Plan industrial berri baterako prest daudela esan eta begira zein izan den beraien asmoa!", dio Apellanizek.

Greba garaia

Bost greba egun adostu zituen langile batzordeak egoera salatzeko: azaroaren 27, 28 eta 29a, eta abenduaren 4 eta 5a. Lehen protesten ostean enpresa langileak mehatxatzen hasi zela ziurtatu du Baranguanek: "Abenduaren 11n langileak lanera ez bazihoazen, enpresa likidazioan sartuko zutela esan ziguten eta epailearen aurrean aurkeztuko zuten dokumentu bat filtratu ziguten". Mehatxuak mehatxu, greba mugagabeari ekitea erabaki zuten.

Enpresak likidazio eskaera aurkeztu zuen Donostiako Epaitegian abenduaren 7an. Bi jai egunen artean egin izanak

» **UNAI AROSA, GREBALARIA:**
"Pertsonalki oso gogorra izaten ari da, apenas egiten dugu lo eta diru sarrerak gero eta urriagoak dira"

"argi uzten du enpresaren asmo txarra", LABeko kidearen aburuz. Alfa Precision Casting behin behineko kudeatzaile berri batzuen esku geratu da eta inbertitzaile berriek hilabeteko epea dute beste proiektu bat aurkezteko. APCko langileek "gardentasuna" eskatu dute prozesu horretan.

Likidazio plana, ordea, ez da enpresaren azken jokaldia izan: lanpostuak behin betiko desagerrarazteko espedientea aurkeztu du. 131 langile kaleratzea ekarriko duen neurria da. APC bi fasetan desegitea da enpresaburuen asmoa: lehenengoan 51 langile kaleratuko dituzte. Horietatik 48 grebaliarik dira eta beste hiruei lana eskaini diete

taldeko beste lantoki batean, sindikatuek jakinarazi dutenez. Kaleratze plana "diskriminatzailea" dela salatu dute langileek. Gainontzekoak uztailaren 31 bitartean botako dituzte euren lanpostuetatik.

Bestalde, LAB eta ELAko delegatuak kargugabetu egingo dituzte, erabaki horrek "zuzen-zuzenean" urratzen du askatasun sindikalerako eskubidea Baranguan ustez. Enpresak greba eskubidea errespetatu ez izana ere salatu dute, beraiek greban egon diren bitartean beste langile batzuk kontratatu baitituzte produkzioarekin jarraitzeko.

Lerro hauek idazteko uanean 80 greba egun beteko dituzte APCko langileek. Arduradunekin lehen hartu emana izan dute, hasierako aldarrikapenak oinarri hartuta: lanpostuei eutsi, kalte-ordainak hobetu, kaleratze traumatikorik ez egin eta prozesu guztian irizpide objektiboak erabiltzea. Hori guztia lortzeko, ordea, ezinbestekoa iruditzen zaie herritarren babesa. Otsailaren 16an manifestazioa zuten egitekoa Eibarko Untzaga plazatik abiatuta. Karpa gorriak oraindik zutik zirauren haize eta euripean. ■

AMAN KOMUNAK

“Ez gara jabetzen herri mugimenduak Euskal Herrian duen indarraz”

Ibiltzen hasi berria da, baina esperientzia eta bizipen asko biltzen du Aman Komunak sareak, herri mugimenduko hainbat taldek eta kidek osatzen dutelako. Joan-etorriko izaera izan nahi du: bakoitzaren kolektibotik sare orokor bat aberastu, sareak tokian tokiko eguneroko lana bizitu dezan. Sorreratik ari dira parte hartzen Maddi Sarasua Errekaleorren bizi den itsasuarra eta Urruñako Hartzea Lopez.



TESTUA ETA ARGAZKIAK

Axier Lopez

@axierL

Bretainiarekin lotura du proiektuaren jatorriak.

Hartzea Lopez: Loturetako bat. EHZ festibalaren bidez, ZADekin lotura sortu genuen. Haiek Euskal Herrira ekarri genituen hitzaldi bira bat egiteko eta gu ere hara joan ginen. Horren bitartez ZADekoekin adiskidetasuna estutzeaz gain, hemengoan artean ere harreman ona sortu zen. Horrek ireki zuen atea, ondoren Euskal Herrian elkar-saretzeko beharraz jabetzeko. Jakinik, hemen ZADen antzeko proiektu asko eta esperientzia eta gogo militante azkarra dagoela herrigintzan.

Aman Komunak abiatzera zerk bultzatu zaituzte? Gabeziaren bat?

Maddi Sarasua: Gabezia baino gogoia izan da. Ildo berean lanean ari diren anitz proiektu ttipi direla ikusi genuen, auzolana eta autogestioaren bidetik bese-telako bizi eredu bat sustatzeko gogoz. Elkartzeko eta elkar trukatzeko beharra eta gogoia daudela atzeman genuen.

H. Lopez: Euskal Herrian gaur egun bada kezkarik herrigintzaren inguruan.

Nondik berriro hasi? Zer landu? Nola? Sumatzen da hainbat proiektu, talde eta pertsonengan biziberritzeko gogoia dagoela. Galdera horiei erantzuna emateko tresna bat, ez bakarra, izan daiteke Aman Komunak. Baldintza baikorrak daude egun mugida iraultzailea pizteko; sendoa, egituratua eta konfiantza giroa eta inklusibitatea ardatz harturik. Proiektu irekia da, proiektua bera ere helburu delako. Hau da, bidea nola egiten dugun elkarrekin. Zer egin baino, nola da gakoa. “Nola egin?” horretan dago proiektuaren arazoia. Ibilbide ona hartuz gero, zer eta zergatik-era helduko gara.

Berriz hasi? Zer egin? Nola egin? Zerbait aldatu da azken urteotan, ezta?

M. Sarasua: Bai, nik uste erreala dela herri mugimenduan noraeza dagoela. Beharbada, zerbaitengan sinestea zailagoa da garai hauetan. Ez da kolektibo, proiektu eta alternatiba faltagatik. Horiek egon badaude. Norabide komun bat adosterik bagenu, positiboa litzateke. Saiatzea bera ona da.

H. Lopez: Gertatzen ari zaigunaz hainbat analisi daude, baina tresna praktikoak falta dira. Ideologia zehatzten gainera elkarrekin biltzeko, lan egiteko eta dinamika adosteko aukera ezin hobea dugu. Euskal Herriko mugimendu feministak azken urteotan izan duen bilakaeraren ildoak erakusten du bidea: transbertsala, esperantza emailea eta, aldi berean, borrokalaria eta esparru askotan lotua dena. Baina horrelako zerbaitek funtzioa dezan, argi dut elkarrekin lan egiteko moldeak horizontala, irekia, gardena eta inklusiboa behar duela izan. Gaur inoiz baino gehiago jarri behar ditugu balore horiek praktikan. Jakinik Euskal Herrian sobera ahal eta baliabide dugula. Falta zaiguna da horiek guztiak nonbait, esparru batean, elkarrekin jartzea.

Lehen harria ekanean jarri zenuten Errekaleorren. Zeintzuk elkartu dira orain arte Aman Komunak bueltan?

M. Sarasua: Biziki proiektu ezberdinak. Denon oinarri nagusia da oraingo gizarte eredu eraldatu nahia, komunitatea, auzolana eta autogestioa azpimarratuz.



Nire ustez oso pozgarria eta aberasgarria izan da hasieratik zazpi lurraldeetako jendea egotea. Hori ez da egunero ikusten.

H. Lopez: Jendea dator ezker abertzaletik, autonomia edo praktika libertoetatik, elikadura burujabetzatik, internazionalismotik eta hainbat esparru sozial eta politikotatik. Azken batean, bakoitzaren ibilbideak aberastu du ekimen hau.

Askotariko jendea izanik, nola lortu adostasunak eta zeren bueltan?

M. Sarasua: Niretzat polita izan zen, Errekaleorreko lehen bilkuran, hori inork ez genuela biziki argi. Ez zegoen inork esaten zuena: “Hau eta hau lortu behar dugu horra iristeko, eta horretarako hau eta hau egin behar da”. Ez. Anitzta izateak dakar galdera eta zalantza berriak piztea. Hastapenetako indefinizio horrek beldurra sortzen du, baina nire ustez, aberatsa da.

H. Lopez: Gure indarrak kontzientzia hartzen dugun unean gauza askori irekiko diogu bidea. Ahalduntze horretan

» **HARTZEA LOPEZ:**

“Argi dut elkarrekin lan egiteko moldeak horizontala, irekia, gardena eta inklusiboa behar duela izan. Gaur inoiz baino gehiago jarri behar ditugu balore horiek praktikan”

dago gakoetarik bat. Pertsonen arteko elkar zaintza, abian diren proiektuen autodefentsa eta egitasmu berriak bultzatuz, oso dinamika potenteak sor ditezke eta, hala, gure indarrak jabetuko gara. Euskal Herrian historia aberatsa dugu, intsumisioa, desobediencia... Eta elkarrekin ibiliz, bidean denok dugula tokia ardatz hartuta, mendiak mugitu ditzakegu. Herrigintzatik Euskal Herriko panorama politiko sozialean pisu handia izan dezakegu.

Oso ohikoa da horrelako proiektu nazionalen hastapenetan asmo eta helburu interesgarriak konpartitzea, baina errealitatean horiei ezin eustea, pertsonak lanez gainezka daudelako proiektu propioetan, gehi elkartzeko distantziak itota.

M. Sarasua: Bai, beldur hori erreal da. Bakoitzak dugu gure motxila, baina ekimen hau ez da motxilara zerbait gehiago gehitzeko, bakoitzaren kolektiboari ere onurak sortu behar dizkio, bestela jai.

H. Lopez: Funtzionatuko du kide guztiarentzat eraginkorra bada, bakoitzaren proiektua nolabait sendotzeko erabilgarria bada. Gure esku dago, ez beste inorena. Ez gaude honetan sigla batzuk edo ideologia bat, bakararra eta eskusiboa bultzatzeko. Gure artean nahasteko gaude. Errusiar entsaladilla itxura dauka. Horrelakoak garelako. Errealitate hori onartuta, goazen hori elikatzerara.

Zer bide dago Aman Komunak parte hartzeko? Nola koordinatzen zarete?

M. Sarasua: Email zerrenda handi bat dago, orain arte parte hartu duten ko-

lektiboek eta pertsonen osatua. Edozein talderi irekia da: amankomunak@riseup.net Hortik komunikatzen gara. Antolaketari dagokionez, aurrera begira, gaikako lantalde batzuk sortzea interesgarria litzateke. Getxoko Tosun egin genuen bigarren asanbladaren ondoren, batzuk martxan dira jada: Euskal Herriko kolektibo eta proiektuen mapa osatzeko eta auzolanak bideratzeko lantaldeak. Era berean, polita litzateke gertutasun geografikoaren arabera ere elkartzen hastea.

Hiru hilean behin elkartuko zarete. Baina hitz egiteko bakarrik ez...

M. Sarasua: Hiru hilean behin asteburu batez batuko gara, asanblada eta tokian tokiko auzolana uztartuz. Hurrengo Ziordiako Amarauna gune autogestionatuan egingo dugu otsailaren 24 eta 25ean. Auzolana gakoa da. Ez gara teorizatzen bakarrik ari, lan egitera gatoz. Elkartzen garen aldiro, hartzen gaituen tokiari ekarpena egin nahi diogu.

H. Lopez: Oinarrian dago hori. ZADen esperientziatik dator. Askotariko borrokek leku berean aurkitu behar dute inizatiba amankomunik. Bata bestearen aberasgarri direla praktikan erakusteko. Aniztasuna oinarri duen militantzia kultura hori ikasi behar dugu. Bide oparo eta polita dago hortik.

Zeintzuk dira orain arte lortutako adostasunak?

M. Sarasua: Orokorrean martxan dauden proiektuak elkarrekin defendatzea eta eraikuntzarako elkarlana. Tokian toki sortzen ari garena konpartitzeko gogo, gainerako proiektuak aberaste. Eta hortik aurrera, pentsa dezakegu elkarrekin egin ditzakegun gauza berriak.

ZAD, Errekaleor, Tosu, Ziordiako amarauna... "Askeguneen" aldeko apustu politikoa al da?

M. Sarasua: Amesten dugun bizi eredu praktikan jartzeko guneak dira. Baina gizarte osora zabaltzeko argi da ez dela aski izango Askeguneen lana. Askeguneen bueltan gaudenok balore amanko-

aman komunak
auzolana eta biltzar nagusia
 Otsailak 24 & 25
ZIORDIA
 Amarauna gune autogestionatuan
 Lurra eta askatasuna
 Larunbata :
 10etan AUZOLANA
 Igandea :
 11etan BILTZARRA

Aman Komunak sarearen hirugarren asanblada izango da Ziordiakoa.

munak ditugulako elkartu gara. Erabakia baino hala gertatu da.

H. Lopez: Askeguneak ez diren beste talde askok ere parte hartzen dute Aman Komunaken. Konexioak egitea da gakoa. Elkarrekin egingo dugun bidea deigarri eta aberasgarria izan eta gustura eginez gero, ondoren, horren bueltan sortuko dira topaketak, hausnarketak, ekimenak egiteko nahiak, altxatzeko gogoak... Euskal Herrian azken aldi honetan, errepresioaren eraginez, kikildu garelako dirudi. Aurrera egin behar dugu salto.

Orain arteko zuen esperientziatik, nolako osasuna ikusten diozue herri mugimenduari?

M. Sarasua: Biziki aberatsa da. Hala izan da, eta egun ere hala da. Ni gaztea naiz eta errespetua diot iraganaz hitz egiteari, baina egun sentitzen dut falta dela denok sinestea zerbait egiazki. Lekuan leku sortzen dira gauza interesgarriak, baditugu ortzemuga oso orokor batzuk, baina zalantzak ditut ea benetan horiek sinesten ote ditugun, justuki, helburu horiek lortzeko bidea ez dugulako hain argi.

H. Lopez: Osasun txarra edo ona izatea gure esku dagoen zerbait da. Guk behar dugu gure burua osasundu. Eta horretan ez gaude bakarrik. Herri mugimenduaren osasun onaren marka izan liteke perspektiba luze bat konpartitzea. Hain zuzen, haiaikagarren txiringittoa sortzen ez amaitzeko edo periferian dagoen zerbait soilik izan ez gaitezen. Ez gara jabetzen Euskal Herrian dugun indarrak. Herri mugimendua kapaz izan daiteke edozein gai erdigunean jartzeko. Puzzle bat gara, pieza barreiatuak. Goazen puzzlea elkarrekin osatzera, eta bidean jabetuko gara zer izan gaitzkeen. ZADek arrakasta izan du denak jabetu direlako, guztientzat aberasgarria zela horren bueltan elkarrekin aritzea. Hala, proiektu txikitzaile bat geldiarazi dute eta gainera, beste jendarte bat martxan jartzeko ekarpena egin dute.

M. Sarasua: ZADek edo Errekaleorrek, hein batean, ilusioa piztu dute. Baina horren falta dugula uste dut. Noraez edo porrotaren

sentsazioa zabaldua da. Hori da irauli beharrekoa. Ez dakit Aman Komunak lortuko duen, baina saiatu beharra dago.

H. Lopez: Irabaz dezakegula sinestea ahaztu zaigu.

Aman Komunak zer izatea espero duzue?

M. Sarasua: Hainbat eta hainbat kolektibo bilduko dituen sare indartsua, edozein unetan gai izango dena gai edo proiektu baten bueltan elkarrekin aritzeko. Elkar babesteko eta sortzeko.

H. Lopez: Iraultzari benetako esparru bat eskaintzea, horren aldeko adierazpen guztien isla gisara. Baina izan, jendeak nahi duena izango da. ■

GIZONAK BEZALAKO SHERIFFA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Inglaterra, 1215. Bouvineseko guduko porrotaren ondoren, Joan I. Ingalaterrakoa, Joan *Lurgabea* ezizenez ezaguna, sorterrira itzuli zen, baina menpekoek ez zioten harrera onik egin. Eta erregearen kontrako jarrera areagotu egin zen zerga bidegabe bat –beste bat– ezarri zuenean. Ekainean nobleek *Magna Carta* dokumentua sinatu zezan lortu zuten; Ingalaterrako erregearen boterea mugatzen duen dokumentu zaharrena da. Baina irailean Aita Santuak gutuna bertan behera uztea lortu zuen Joanek.

1216ko lehen hilabetetan noble errebolta-riek Rochester eta Londres hartu zituzten, eta Frantziako tronuko oinordeko Luisi Ingalaterrako koroa eskaini zioten. Joani aldeko hiru gotorleku besterik ez zitzaizkion geratzen: Windsor, Dover eta Lincoln. Azken horretan emakume bat zegoen gazteluzain: Nicholaa de la Haye.

1150 eta 1156 urteen artean jaio zen Nicholaa. Aita Richard de la Haye zaldun normandiarra zuen, Lincolneko gaztelu-jauna, eta hura hildakoan, gaztelua defendatzea egokitu zitzaion alabari. 1191n gaztelua eraso zutenean, adibidez, Richard de Devizes kronikalari garaikideak jaso zuenez, Nicholaak “emakumea ez balitz bezala pentsatuz, gizonek bezala defendatu zuen Lincolneko gaztelua”.

Magna Cartaren prozesuan ere nabarmendu zen. Joan erregearen aurkakoez gaztelua setiatu zuten 1215ean, baina Nicholaak errenditu gabe eutsi zion eta errebolta-ri buru Gilbert de Gantekin su-etena sinatzea lortu zuen. 1216an Joanez gaztelua bisitatu zuenean, gazteluko andereak esan zion bere adinean ez zela gai kargua behar bezala betetzeko eta gazteluko giltzak eskaini zizkion; erregeak, ordea, karguan berretsi zuen. Eta ez hori bakarrik; urte bereko urriaren 19an hil zen Joan *Lurgabea*, baina hil baino lehen Lincolnshireko sheriff izendatu zuen de la Haye.

Emakumeak bezalako heriotza

Joanen oinordeko Henrike III.ak 9 urte zituen koroa jantzi zuenean. William Marshal noblearen laguntza izanagatik, aurkakoak agintari berriaren ahuldadeaz baliatu ziren; noble errebolta-riek, Luis frantziar erregegaiaren armadarekin bat eginda, Ingalaterrako gotorlekurik garrantzitsuenetakoa eraso zuten berriro: Lincoln. Gazteluzainak, ohi bezala, gogor eutsi zion, baina errefortzuak beharko zituen setioa gainditzeko. 1217ko maiatzaren 20an erregearen babesle William Marshal setiatzaileak eraso zituen kanpotik, Nicholaa de la Hayek barrutik, eta garaipena lortu zuten. Hori eta Sand-



CHRIS BROADBENT

Lincolneko gaztelua emakume baten ardurapean zegoen 1216an: Nicholaa de la Haye. Urte berean Joan 'Lurgabea' sheriff izendatu zuen.

wicheko itsas guduan lortutako garaipena nahikoak izan ziren Henrike III.a tronuan indartu eta Frantziako nahiz bertako oposizioa uxatzeko.

Henrike III.aren aldekoek laudorioak eskaini zizkieten emakume gazteluzainari, baina beste guztia kendu. Lincolneko garaipena lortu eta lau egunera, sheriff kargua kendu zioten erregearen osaba Salisburyko kondeari emateko. Kondeak, nonbait, ez zuen nahikoa horrekin eta de la Hayeren lurra eta gaztelua ere nahi zituen. Beste 9 urte eman zituen Nicholaak gotorlekua defendatzen, baina ez zuen berriro errefortzurik ez laudoriorik izan. 1226an amore eman zuen eta handik lau urtera hil zen. ■



UCL

Aurpegi britainiarrik zaharrena

1903an 10.000 urteko giza eskeleto bat topatu zuten Gough kobazuloan, Cheddarren, Ingalaterrako hego mendebaldean. Mende bat pasatxo geroago, Londresko Historia Naturaleko Museoko zientzialariek Cheddarreko gizakiaren DNA egoera oso onean ateratzea lortu dute eta horrek gizon hari buruzko informazio genetiko asko ekarri du, bes-

teak beste, azalaren, begien edo ilearen kolorea. Hala, indibiduoaren aurpegia berregiteko aukera eman die zientzialariei. Eta emaitza harrigarria izan da: begi urdinak zituen, ile beltza eta azala oso iluna. Londresko University Collegeko adituen esanetan, giza azalaren pigmentazio argia uste baino ezaugarri berriagoa dela adierazten du horrek. ■

Zerutik, Miss Moztare



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Nekazaritzaren zientzien munduan erredukzionismoa izan da nagusi, ikuspegi motza, motzarena, alegia. Erredukzionismo hitz itsusiak zera adierazi nahi du: sistema edo izakera konplexu bat, bera osatzen duten zatien bidez adieraz daitekeena. Adibidez, landarea pattal badago, ongarrri jakin batzuk eman, eta suspertuko da; edo, izurrite bat bada, botika eman eta akabatuko dugu. Ar eta eme, agronomoen artean Miss Moztare diploma banatzeko zailtasun handirik ez litzateke izango.

Nekazaritza kapitalista edo industria-lantzen dutenak ere jabetzen ari dira. Gero eta begi bistakoagoa da: sistema osoetan pentsatu behar dugu. Lur baten analisi kimikoak neurri batzuk eman-



Nekazaritza biodinamikoak kontuan hartzen ditu zeruko gora-beherak ere.

go dizkigu, baina gero toki eta baldintza bakoitzera egokitzen jakin behar da. Erredukzionistentzat, bizitzako prozesu biologikoak kimika soilera eraman daitezke, eta kimika fisikak esplikatzen du. Iraultza berdea deitu zitzaion lehengo mendean: pestizida eta "ongarrri" sintetiko kimikoak erabiliz munduko gosea amaituko zela zioten. Baina, irtenbide sinpleak erabiltzen direnean, ez dira lortzen bilatutako emaitzak, eta prozedura horrek berak garamatza gero eta baliabide konplexuagoak erabiltzera. Denbora.

Beste aldeko muturrean dago holistika: sistemek multzo gisara funtzionatzen dute, eta ez dira bere osagaien batuketara soilak. Lurra ulertzeko izugarritzko urratsa da. Lurra sistema izugarri konplexua da,

eta konplexutasun horrek berak ematen dion bizitza eta bizitasuna dira landareen eta gainontzeko bizidunon oinarria. Izan ere, Lurrean dago lurra, eta Lurra ez da planeta bakartu bat, sistema oso konplexu baten parte da. Landareek lurrean duten bizimodua sistema horretan garatzen da. Landareek lurra behar dute, baina baita zerua ere. Zeru guztia, atmosfera, eguzkia, ilargia, eta abar osoa. Horri deitzen zaio "biodinamika".

Herenegun arte, iraultza berde haren babesle eta ekologikoaren aurkari itsu zen zientzialari mordoa, gaur dakitena jakinda, ekologikoaren kontsumitzaile dira. Horietako batzuk, gaur egun, nekazaritza biodinamikoak iraintzeraino latsagabetzen dira. Eman eman denbora. ■

Produktu **EKOLOGIKOEN** banatzaileak



"Cal Valls"



...

Bisitatu gure webgunea: www.biotza.es

BIOTza

banaketak.sl.



21 urtez emakume nekazari eta artisauak protagonista



Garazi Zabaleta
@tirikitran

Urteak daramatzate Amorebieta-Etxanon emakume nekazari eta artisauen azoka antolatzen. 1971n hasi zuen bere ibilbidea merkatuak, eta aurtengoa XXI. edizioa izango da, martxoaren 3an. “Iniziatiba aitzindaria izan zen bere garaian emakumeen azoka”, azaldu digu Berdintasun zinegotzi Alicia Hernandez Cid-ek. Martxoaren 8ko Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren harira antolatzen dute ekimena.

Emakumeen ahalduntzea eta ikusgarritasuna helburu

Herriko Berdintasun Planaren barruan kokatzen den ekimenak emakumeen ahalduntzerako erreminta izan nahi du. “Kultura nahiz gizartean emakumeen ikusgarritasuna bultzatzea ere bada azokaren helburua”, gehitu du Hernandez Cidek. Izan ere, Euskal Herriko emakume ekoizleen plaza bihurtzen da Amorebieta-Etxanokoa urteko egun horretan, eurak dira protagonista nagusi eta bakar.

Hasierako urteetan parte-hartzaileak batez ere herriko emakumeak baziren,

urteen poderioz Euskal Herri osoko ekoizleak hurbiltzen dira. Azokako baldintza nagusia da produktu guztiak Euskal Herrian egoitza duten emakumeek ekoiztiak eta salduak izatea. “Urteotako bilakaera oso positiboa izan da. Emakumeen ahalduntzea nabaria izaten ari da zenbait sektoretan, hala nola, elikagaie-tan, jantzigintzan edota bitxigintzan”, dio Hernandez Cidek.

Aldarrikapena eta festa uztartuz

Martxoaren 3an Amorebieta-Etxanora hurbiltzen denak izango du zer ikusi eta zer dastatua. Ogia, ahatea, gozoak, marmeladak, etxeko hanburgesak, barazkiak, gazta eta esnekiak, bitxiak, larrua, zeramika, xaboiak, arropak, egurra, loreak, estetika produktuak. Erosketa zakua betetzeko hamaika aukera izanen ditu bisitariak.

Merkatuko eskaintzaz gain, txosna guinea ere zabalduko dute antolatzaileek, eta goizean zehar ikuskizunak egonen dira: txistulariak, trikitilariak, dantzariak eta bertsolariak arituko dira giroa alaitzen. ■

www.bizibaratzea.eus

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Otsailak 22: Zizurkil

Nekazaritza ekologikorako haziak sortzeko ikastaroa. 15:30ean, Fraisoro Eskolan.

Otsailak 22: Tuter

Izotz barazkiei buruzko mahai-ingurua. 19:00etan UNEDen.

Otsailak 22: Donostia

Hildakoek hitz egiten digute: dieta eta jendartea Erdi Aroko Santiago bidean hitzaldia. 19:00etan, San Telmo Museoa.

Otsailak 22: Mundaka

Ogi berezien tailerra. 19:00etan OrtuART espazio irekian (Goiko kale 38).

Otsailak 22: Iruñea

Azul y Garanzarekin ardo dastatzea. 20:30ean Katakrazen.

Otsailak 24: Donostia

Perretxikoa ezagutzeko irteera mikologiko gidatua. 8:30ean Aranzadi Zientzia Elkarte.

ZURE HERRIKO EKINTZEN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus helbidera idatzi edo www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso erraz.

AGENDA OSOA NOIZNAHI IKUSTEKO

www.bizibaratzea.eus

Bizi Baratzea buletina jasotzeko, eman izena

Zure e-postan jasoko dituzu azken artikulak, galdera-erantzunak, agendako ekintzak, hitzak, esaerak, argazkiak... Euskal Herri osoko edukiak biltzen dituen landareei buruzko buletin bakarra jasotzeko, bidali zure e-posta helbidea hona: bizibaratzea@bizibaratzea.eus

azoka

Gure Errepublikan eman eta hartuz, denok ongi bizi gaitzen elkar zaintzen dugu. Sartu Azokan eta ikusi ARGIA Jendeak komunitateari musutruk eman dizkion gaiak. Oraindik ez bazara ARGIAkoa, oraintxe duzu egiteko aukera.

Dagoeneko erabiltzen ez ditugun gauzak, edo norberak etxean, lanean, militantzian egindakoak ARGIA Jendeari emateko aukera dugu. ARGIAko komunitatearen arteko harremanak bultzatuko ditugu horrela. Indartu dezagun indartzen gaituena! Twitterrez jarraitzeko: @argiaAzoka

www.argia.eus/azoka

LANGILE KLASEA ETA ALTERNATIBEN SAREA

Erresistentzia eta alternatiben eraikuntza, biak behar ditu langile klaseak. Pobreziari, prekaritateari, desorekei, langabeziari, bazterketari aurre egiteko eta nahi dugun mundu berria sortzen joateko ezinbestekoak dira sindikalismo eta kooperatibismo eraldatzailea, ekonomia sozial solidario eta eraldatzailea... Behar dugun aliantza honetan aurrera egiten jarraitzeko asmoz osatu du Manu Robles Arangiz Institutuak Gai Monografiko hau.

Edizio urtea: 2016


Oharra: Pasa ARGIAtik bila, eta bestela, bidualketa gastuak liburuak eskuratzen duenean ordainduko ditu hartzaileak.



ARGIA Jendearentzat musutruk

46 salgai ditugu ARGIAren Azokan: argitalpenak, mahai-jolasak, jantziak, ikus-entzunezkoak eta bestelakoak. ARGIA Jendeak musutruk hartu ditzakegun 15 gai ere badira!

Manu Robles Arangizek ARGIA Jendearentzat musutruk emandako beste irakurgai batzuk:



Emantzipazioa feminismorik gabe?

Silvia Piris-en gogoeta, erakunde mistoetan feminismoak izan beharreko lekuaz.

ARGIA Jendearentzat musutruk



Euskal Herriko energia eredu iraunkor baterantz

Gorka Bueno-k 2014an idatzirikoa.

ARGIA Jendearentzat musutruk



Elkartasuna eta autogestioa Grezian

Antonio Cuesta Marínek 2014an idatzia.

ARGIA Jendearentzat musutruk

Bazkide batzarra, lantaldeak eta mendeurrena



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Otsailean egin zuten ARGIAren urteko bazkide-batzarra. Ezaguna da euskaldunok diruaz hitz egiten ez dugunaren kontu hori, baina azken urteetan moda n jarri den garden-tasun hitz-potoiloaren izenean, batzarraren berri emateko eskatu eta esan didaten lehen gauza izan da: "2017ko kontuak positiboak izan dira, eta 2018rako ere aurreikuspen baikorrak ditugu". Komunitatea sendotzen jarraitzeko asmo eta gogoia dago taldean, eta indarra jarriko da ahalik eta jende gehien ARGIAkoa egin dadin.

Lehenago ere kontatua dugu ARGIAk lantaldeetan funtzionatzen duela. Aste-kariaren eta eguneroko sareko mugimenduez aparte, ARGIA aurrera ateratzeko beste hainbat proiektu eta ekintza antolatzen dira, eta horiei forma emateko sortuta daude lantaldeak. Ezaugarri garrantzitsu bat, lantalde bakoitzean ARGIAren sekzio bakoitzeko kide bat egoten dela, gutxienez; erredakzio, komertzial eta idazkaritza sailak nahastuta ikuspegi desberdinak izaten direlako eta aldi berean eguneroko martxatik atera eta betiko rolak aldatzeko aukera ematen duelako.

Mendeurrena ospatzeko lantaldea

Hiru urte dira modu honetan antolatzen hasi zirela, eta gustura daude martxarekin. Hiru urte hauetan sortutako lantaldeak, ordea, ez dira finkoak. Alegia,



sortu eta desegin erreparatu gehiegirik gabe egiten dituztela. Beharren arabera. Esaterako, 2018ko berrikuntzetako bat da ARGIAren 100. urteurrena ospatzeko sortu berri den lantaldea. 2019an beteko ditu ARGIAk ehun urte, eta mendeurrena ospatzeko prestaketa lanetan murgiltzera doaz kide batzuk. Baina mendeurrenaren aitzakia gehiago bideratuko dute eduki aldetik arrastoa utziko duten ekarpenak egitera, festa egun batera baino. ARGIAren ale guztiak digitalizatzea da helburuetako bat, eta ohiko moduan lizentzia librearen aldeko apustua eginez, Interneten edonorentzat eskuragarri jarri nahi dute eduki hau guztia.

Bestalde, mendeurrenean indarrak zentratzeak berri txar bat ekarriko die nortasun agirien jaurtiketarako entrenatzen ari direnei: 2018an ez da Argia Egunik izango. Beraz, lantalde hori desagertu egin da.

Hauetako aurten egongo diren lantaldeak (oraingoz): Azoka, Bizi Baratzeta, Proiektuak, Argia Sariak, Durango-ko Azoka, Harpidetzak eta Formazioa. ■

Sarean arrantzatua

Hedoi Etxarte

@hedoi_etxarte

Bada Wagner eta EH lotzen dituen pertsonaia bat, XX. tenore wagneriarra, Isidoro Fagoaga. Hemen Jakinek digitalizatutako Zeruko Argiako artikulu batzuk. Iaz Jon Abriek-eta jardunaldiak egin zizkioten "Bada tenorea!" izenarekin Beran.



Elios-AEK

@heliosaeak

Gordeta nituen aleen artean, elkarriketa honekin egin dut topo. Oso-oso-oso mamitsua, ona. Ikasten.



AGENDA

Olatukoopek antolatutako KoopFabrikaren saioa

- Martxoaren 3an, Iruñeko Katakraken.
- 10 proiektu aztertuko dira, tartean, ARGIA.
- Ikastaroko ikasleei mugatua. Arrakasta handia izan du aurtengo deialdiak. Gogoz geratu bazara, hurrengo ikasturtean izena eman!

Lekarozko Aroztegia
jauregiaren inguruan
egin nahi duten proiektu
urbanistikoak literatura
ere ziprztindu du.

Telleria eta gero, zer? **liburuari buruzko polemika** **NORK HIL NAHI DU** **EUSKARAZKO NOBELA** **BELTZA BAZTANEN?**

Fikziozko liburu bati buruz solasean aritu ziren Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordean otsailaren 6an, ordu eta hogeita minutuz, tarteka tentsio handiz. Egoera bitxia eragin du UPNk, Lekarozko institutuko DBH4ko ikasleek irakurri duten eleberririk bat jo-puntu jarri. Ernesto Prat Urzainkiren *Telleria eta gero, zer?* (Elkar, 2017) da nobela, genero beltzekoa, eta eskuin erregionalistak salatu du zentroko irakasleek "jarrera ideologiko eta politiko batzuk inposatzeko" erabili dutela. Baina kasua aztertzen hasita, beste pista batzuk aurkitu ditugu: bailaran egin nahi duten operazio urbanistiko bat eta, agian, haren konplize izan daitekeen erdarazko nobela-sorta arrakastatsu bat.



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Hau erreportaje bat da, ez da nobela beltza, baina hala ere baditu bere trama eta pertsonaiak. Lehenbizikoa, Lekarozko institutuko ikasle baten ama, UPNko zinegotzia ere badena: Isabel Olave. Zentroko zuzendariarekin bildu zen bi aldiz Gabonen aurretik, *Telleria eta gero, zer?* ikasketa-programan sartu izanari buruz argibideak nahi zituen. Zuzendariak azaldu zion zentroko euskara departamentuaren erabakia zela, ea sail horrekin bildu nahi zuen. Olavek ezetz. Eta orduan hasi zen UPN Iruñetik liburuari buruzko azalpenak eskatzen. Ondoren etorri da parlamentuko agerraldia. Azkenik, urtarrilaren 14an, Olavek *Diario de Navarra*-n artikulua publikatu du salatuz eleberririk Lekarozko Aroztegia proiektu urbanistikoaren “bertsio nobelatu eta partzial bat” eskaintzen duela, “haren bultzatzaileak eta kargu politikoak aipatuz eta iseka eginez”.

Gertatu denarekin harrituta dago institutuko Euskara Departamentuko burua den Kristina Fernandez Perez. Istorio honetako beste pertsonaia bat. Istorio honi buruzko beste ikuspegi bat: esplikatuz duenez, kurtso hasieran guraso guztiei bidali zitzaizkien ikasturteko programazioa, irailtik zekiten *Telleria eta gero, zer?* irakurgaiaren artean zegoela; eta gurasoek onartu egin zuten programazio hori. “Gure asmoa ez zen inor mintzea”, adierazi du. Gaia politikoki erabili dutela uste du eta beste hainbeste adierazi dute otsail hasieran Mendaub DBHI, Elizondo Lanbide Eskola IIP eta Lekaroz BHiko klaustroek *Berria*-n eta *Diario de Noticias*-en argitaratu den artikulua batean, zeinean onartezintzat jo duten gaia lekuz kanpo ateraz irakasleen erabaki pedagogikoak auzitan jartzea.

“Aroztegiaren gaia Baztanen dago, ez du liburuak ekarri”, esplikatuz du Fernandezek. Eta hemen dator trama: literaturatik, irakaskuntzatik eta ika-mika politikoetatik haragoko kontuak azalduz, baztandar askoren kezka, Lekarozko luxuzko hotela, golf zelaia eta etxe berri asko egiteko planak eragina. Itzi Torresek, “Aroztegia... eta gero zer?” plataformako kideak, duela bi urte aldizkari honetan plazaratu zituen proiektuak eragin dituen zenbait galdera: “Zertara dator 340 biztanleko herri batera 226 etxebizitzako urbanizazioa, biztanle kopurua bikoizteko adina? Nor etorriko da hara bizitzera? Nola aldatuko ditu horrek

soziolinguistikoki herria eta bailara? Zergatik hamaseigarren herria Baztanen 800 etxe huts baino gehiago daude-nean?”.

Giro nahasia dago Aroztegiaren inguruan, baina literaturak ihes egin behar al dio problematika sozialari? Kontrakoa egin izan du nobela beltzak: genero horretako literatura gizartearen ur uherretan murgiltzen da eta handik ateratako materialak fikzionatzen ditu, kritika soziala osagai gisa erantsiz. Ikasleei eleberririk beltza zer den erakustea zuten xede, hain zuzen, Lekarozko institutuan; eta gertuko adibide batek gazteak erakarri zitzaizkien iruditu zitzaizkien. Ezagunak egiten zaizkien lekuetan dabilta *Telleria eta gero, zer?*-eko pertsonaiak; gatazka aktuala baten antzekoa agertzen da; eta bailarako gazteek erabiltzen duten euskararen tankera du testuak. Argudio horiekin esplikatuz dio institutuak Nafarroako Hezkuntza Kontseilariari eleberririk aukeratu izana. Gogora ekarri dute, halaber, Praten nobelaz gain Jon Arretxeren *Xahmaran* (Erein, 2009) eta Alberto Ladron Aranaren *Piztiaren begiak* (Elkar, 2012) direla irakasgai horretako beste irakurgaiak aurretik, genero beltzeko liburuak horiek ere.

Baztanen sustraituta dagoen tradizio literario batekin konektatzen du ikasketa-programak: esaterako, Elizondoko Mariano Izeta idazlearen *Dirua galgarri* (1962, Auspoa), euskarazko nobela poliziakoaren aitzindarietako bat izan zen. Gotzon Garateren *Elizondoko esku-*

titzak (1977), Jon Bidart detektibearen protagonista duen bigarren eleberririk ere, Baztanen kokatua dago. Eta hari horri tiraka, 2014tik antolatzen dute bailaran (H)ilbeltza, Euskal Nobela Beltzaren Astea. Aurtengo edizioa urtarrilaren 15etik 21era egin dute eta urtez urte fama hartzen ari da, Euskal Herri osoko idazle esanguratsuek eta nobela beltzaren zaleak erakarrit.

Eta hor dago istorioaren korapiloa. Alberto Catalan UPNko bozeramaileak, parlamentuan gaiak eztabaidatu zenean, adierazpen susmagarria egin zuen: “Baztango nobela beltzari buruz hitz egiten da. Bai, noski. Zergatik ez da Dolores Redondoren trilogia gomendatzen? Hori ere Baztanen girotua dago eta eragiten ari da jende asko Baztanera joatea, hiru nobelak gertatzen diren lekuak ezagutzera”. Badirudi eskuin erreionalistak badituela lehentasun literarioak: Redondoren liburuak bai, euskal nobela beltzik ez.

Azken paragrafoa ez da detektiberik azaldu istorio honetan, baina hara, hemen dator lasterka, edizioa itxi aurretik pista garrantzitsu bat eman behar digula esanez: “Dolores Redondori buruzko informazioaren bila aritu nauk eta aurkitu diat elkarrizketa bat...”, arnasa hartzeko eten du solasa; “... TVEko *Página Dos* programan egin ziotean”, erantsi du, eta pantaila jarri digu muturren aurrean: eserita agertzen da Redondo paraje bukoliko baten erdian, aurkezlea parean duela. Bien atzean, eraikin bat. “*Palacio de Arozteguia, Lekaroz*”, zehazten du grafismoak. “Honek dena esplikatzen dik”, dio detektibeak. Zer esan nahi duen galdetu diogu. “Joder, ba argi zago: Aroztegiko operazioa errazago pasatzen duk fenomeno kultural batekin justifikatuta. Baina klaro, horretarako Baztan idiliko bat behar ditek, Basajaun, Tartalo eta kapitaleko turistak ekartzeko gauza horiek, ez proiektuak kritikatzuten duten nobelak. Ez al duk ikusten?”. Tira, tira, hobe izango da kontua hemen uztea, konspirazio-teoria baten itxura hartu baino lehen. “Hik ikusiko duk. Baina uste nian nobela beltzaz ari ginela: batzuetan errealtateak fikzioaren bidez agertu behar dik, zertarako kontratatutau nauzue bestela?”. Ez dugu jakin zer erantzun. Isiltasun deseroso baten ondoren, zigarro bat piztu du, gabardinarekin lepoa jaso; eta erredakziotik aterata da, kale ilunera. ■

» **ALBERTO CATALAN (UPN):**
“Zergatik ez dute Dolores Redondoren trilogia gomendatzen Lekarozko institutuan?”

» **Aroztegia jauregiko proiektu urbanistikoak polemika eragin du Baztanen. Baina literaturak ihes egin behar al dio horri?**

Oscar sariak eta Internet GEZURRAK, FILTRAZIOAK ETA DESKARGAK

The Shape of water, The Post, Lady Bird, Three Billboards outside Ebbing, Missouri... aurtengo sari potolo guztiak irabazteko aukera gehien dauzkaten film hauek, bat-batean, modu misterioetsuan eta batzuk zinema aretoetan estreinatu ere egin gabe, Interneten azaldu dira, "doan" eskuragarri. P2P sareetan, *screeener* ugari topa dezakegu eta dezente kalitatearekin gainera. Hau gertatzea ez da berria, azken urteetan errepikatzen ari den zerbait baita. Baina, nola liteke? Nondik atera dira kopia hauek?



Gaizka Izagirre
@Gaizka_Izagirre

Goazen pausoz pauso. Interneten modu ilegalean film bat deskargatzen dugun bakoitzean ikusiko zenituzten fitxategi horien izenaren ondoan *CAM*, *TELESYNC*, *SCREENER*, *DVDRIP* edo *DVDScr* bezalako hitzak. Deskargen munduan, fitxategiaren jatorriaren arabera, kalitate desberdinak existitzen dira eta hauek sailkatzeko jartzen dira izen horiek. *CAM* formatukoak, adibidez, kamera batekin zuzenean zinema aretoetan grabaturiko filmak izaten dira eta ondoren pasatzen dira formatu digitalera. Hori bai, kalitate oso eskasekoak izaten dira.

Ohikoena, eta gaurko gaiari zuzenean loturikoak, *DVD-SCREENER* (*scree-ner*) fitxategiak izaten dira. Promozioetarako erabiltzen diren DVD, Blur-ray edo (garai batean) VHS-etatik ateratzen diren kopia digitalak izaten dira. Eta hori argi izanik, hementxe agertzen zaigu pil-pilaren saltsa baina lodiagoa den gaia. Nola da posible hasieran aipatu ditudan film horien *DVD-SCREENER*

kopiak Interneten egotea, kontuan izanik estreinatu ere egin ez direla? Alegia, nork igo ditu sarera?

Akademikoen *screeener*-ak

AEBetan sarien denboraldia hasten denean, banatzaileek beraien ekoizpen guztien kopiak bidaltzen dizkiete zine-akademiako kide diren guztiei, film konkretu hori ikusi eta bozkatu ahal izateko. 1980ko hamarkadatik hona egiten den zerbait da –garai hartan, noski, VHS formatuan bidaltzen ziren–. Kalkulatzen da *screeener* horiek 6.000 lagun ingururen eskuetara iristen direla. Estudio handiek, normala den bezala, beraien filma ahalik eta kide gehienarengana iristea nahi dute. Alde batetik, sarietan ahalik eta izendapen gehien jasotzeko eta, bestetik, noski, garaile bihurtzeko boto magiko hori eskuratzeko.

Noiz eta nola bidali ere, estrategia horren barruko gakoetako bat bilakatu da: batzuek ohikoa dena baino lehenago bidaltzen dute, udazken hasieran –hori ote

da deskarga batzuk hain azkar azaltzearen arrazoia?–, sasoi horretan akademikoek, normalean, film gutxiago izaten dutelako pilatuta eta beraien lanei arreta handiagoa eskaini diezaiekutelako; besteek aldiz, data gerturatzen denean, modu horretan lan horiek pantaila handian ikusteko aukera eskainiz eta alderdi teknikoak gehiago nabarmenduz.

Filtrazioak

Film baten 6.000 kopia baino gehiago mundu osoan bueltaka dabiltzanez, ia ezinezkoa da horietako batzuek filtraziorik ez jasatea. Akademikoek film hori ikusten duten momentuan, banatzaileek eskatzen diete kopiak suntsitzeko, bai, baina ez daukate modurik hori egin ote duten edo ez ziurtatzeko. Lan hauek guztiek "*For your consideration only*" bezalako mezuak izaten dituzte itsatsita normalean.

Fenomeno hau aztertzeko, 2003tik hona Andy Baio izeneko tipo batek webgune bat sortu zuen. Emaizta, lotura ho-



» Oscar sariak iritsi aurretik 6.000 lagun ingururen esku jartzen dira pelikulak, haien botoa eskuratu nahian. Baina horrek filtrazioak errazten ditu

» 2003tik aurrera sareko erabiltzaile batek sistematikoki aztertu ditu filmen filtrazioak Oscarren aurretik. Emaitzek ez dute zalantzarako tarterik uzten

netan kontsultatu dezakezuen dokumentuan dago ikusgai: <https://labur.eus/OoQkG>. Bertan, estreinaldi data ikus daitezke, *screener* horien bidalketak noiz izan ziren eta film horiek *online* azaltzen diren egun zehatzak. Adierazgarria ezta?

Argi dago, bestalde, kopia horiek guztiak esku batetik bestera igarotzen diren bitartean, horrelakoak gertatzea saihestezina dela, edonork egin dezakeela kopia digital bat. Askotan aipatu izan dute familiako batek hartu ote zuen, lagun batek agian. Aitzakiak besterik ez. Alde batetik, uste dudalako guztiaren atzean interes ugari daudela. Eta bestetik, benetako borondatea izanez gero, oso erraz moztu zitekeen gai bat iruditzen zaidalako. Hollywoodeko exekutibo erraldoi horietatik hasiz, adibidez. Aitzakiak aitzaki, kontua da, pirateriaren kontrako gezi guztiak beti norabide berean jaurtitzen direla, baina kasu honetan arazoa beste aldetik datorrela. Ez duzue uste? ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Edizio gaurkotu bat




Aritz Galarraga
@aritzgalarraga

Azkena aletu genuen hemen Pierre Topet, a.k.a. Etxahun poetaren bizitza aletzen zuen obra, *Joanak joan*, Jon Etxaiderena. Ekar dezagun gaurkoan Pierre Topet, a.k.a. Etxahun poetaren obra bera, zeinak era berean balioko digun ulertzeko bere bizitza. Hitzaurrean dio Xipri Arbelbidek: “Kantu horiek izan ez balire, nehork ez zuen Etxahun izan zenik ere jakinen”. Kontziente da Etxahun halaber, aitortzen duenean doala “Ene bizitziaren koblaz ezartera”. Adibidez “Bizitzearen kantorea” izeneko sortan, zeinean berrogeita bederatzi estrofatan haizutzen diren, urtez urte, Etxahunen bizitzaren lehen berrogeita zortzi urteak. Bizitza bat bestalde sufrimenduz betea –“Etxahon’en zorthia izan da aiphatü, / Mündian gütik dila haboro sofritü”–. Sortzetik beretik –“Aitetamer beininzan haurreti hügüntü”–: *bullyinga* jasan behar izan zuen, premugoa kendu zioten, ondasunak galdu zituen; maite zuen emakumearekin jarraitzea debekatu zioten, beste emakume batekin ezkontzera behartu zuten, emaztea auzoarekin enbolikatu zen, bastart bat egiteraino. Ondorioz, tratatu txarrak, presondegian egonaldiak, judizioak bizi osoan zehar. Eta suizidio saiakeraren bat: “Hüllan ezarri nintzan fi gaixto egitera”.

Etxahun, beraz, poeta esan dezagun erromantikoa, ez akaso ikuspuntu teoriko batetik, baina bai ezinbestean praktikan, bizimodu hain makurra eraman zuenez testuetara. Ni indibidualaren goraipamena, nahi bada “Ni”-aren literatura, baina 1850 aurretik, XIX.

**Piarra Topet,
Etxahun
(Bertso bilduma)**
XIPRI ARBELBIDEK
PRESTATUA

Elkar, 1987



*Pierre Topet Etxahun koblakaria.
(Barkoxe, 1786–Barkoxe, 1862).*



mendearen lehen erdian. Ez bakarrik: orobat kronika beltza –“Bizia deronak idoki personari / Beria ere zor diala, orhit hadi”–, kronika horia –“Haurrak aita nur din deikük erranen”–, gai sozialak –esaterako emigrazioa: “Montebidorat dira hanitz abiatzen”–, edota engaiamendu politikoa –botoa eskatzeraino: “Egizie Musde Chahori zien botzen emaitia”–.

Piarra Topet Etxahun. 1786-1862 biografia-
ren osagarri, bertso bilduma honek biltzen ditu ustez zubererazko testu originalak (ez baitira Etxahunek idatzi bezala jasotzen) eta ustez batura egin egokitzapenak (askotan hobeki ulertzen baitira zubereraz omen diren bertsioak), Xipri Arbelbidek atonduak denak, iruditu zait pixka bat aliritzira. Sarean ere badaude Etxahunen testuak bestela. Baina uste dut XXI. mendeko irakurleak merezi duela edizio gaurkotu bat, garaikidea, auskalo kritikoa, Etxahunen bertsoez gozaraziko liokeena. ■

» KONTZERTUA

Erritmoa eta emozioa



Montserrat Auzmendi del Solar

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak ekarri digu nortasun handiko eta karisma berezia duen musikari bat, Håkan Hardenberger tronpeta-jole suediarra hain zuzen ere. Eta, aldi honetan artista honen bi ikuspegi disfrutatzeko aukera izan genuen. Alde batetik bakarlari bezala, eta bestetik zuzendariaren lanetan. Bietan, distiratsua, nahiz eta, egia esan, bakarlariaren rola hobeto egokitzen zen haren ezaugarrietara. Teknika doi-doia dauka tronpeta-joleak, oso adierazkor eta gertua da publikoarekiko, eta freskotasan aparta du estilo guztietan. Osagai hauekin guztekkin izar bat egiten da, eta batzuetan horrelako izarrek gidari bat behar dute enpatea lortzeko orkestrarekin. Hardenbergerrek lan bikaina egin zuen orkestrarekin, egia da, baina agian suediarrek duen indarrak eta orkestraren kalitateak emaitza doi eta eleganteagoa lortuko zuten beste zuzendari batekin. Hau da nire hausnarketa guztiz pertsonala.

Estilo desberdinen paseoa egin genuen, ederra. Hasteko, Haydnen inozotasun faltsuaz gozatu genuen. *Kreazioaren Preludioa: kaosaren irudikapena* doi eta delikatu iritsi zitzaigun. Jarraian, *Tronpeta eta sokazko orkestrarako kontzertua mi bemol maiorrean* sendo eta adierazkorra entzun genuen. Hemen bai luzitu zen Hardenberger jauna. Garbitasunez jo zuen uneoro eta txunditu egin zuen publikoa hain famatua den hirugarren mugimenduarekin. Saioaren lehenengo zatia amaitzeko, konpositore beraren *22. Sinfonia, mi bemol maiorrean; Filosofoa* jo zuten, estilo garbi eta purua mantenduz.

Haydn, Takemitsu eta Lutoslawskiren obrak

EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA

Zuzendaria eta bakarlaria:
Håkan Hardenberger
(tronpeta-jolea).

Gasteizko Principal Antzokia.
Otsailaren 5a.

Bigarren zatian, beste usain bateko musika entzun genuen. Töru Takemitsu konpositore japoniarrak *Paths* obra egin zuen Witold Lutoslawskiren omenez. Elkarrizketa berezi bat lantzen du Takemitsuk obra honetan. Tronpeta sordinarekin eta sordinarik gabe tartekatzen dira ariketa melodiko iradokitzaileak eginez. Hardenbergerrek, bere teknika izugarriari esker, interpretazio bikaina egin zuen. Lutoslawskiren *Orkestrarako kontzertua*-rekin amaitu zen emanaldia. Folklore, ehundurak, tinbre jokoak, klasizismoa eta abangoardia nahasten dira lan efektudun eta erakargarri honetan. Euskadiko Orkestrak, Håkan Hardenbergerren batutapean, irakurketa zinez kanporakoi eta distiratsua egin zuen. Oso ona. ■

Håkan Hardenberger tronpeta-jole eta orkestra zuzendari suediarra (*Malmö*, 1961).





Udako asteazken bat



Irati Majuelo Itoiz

ARGAZKIA: RUBÉN GARCÍA

NØGEN TALDEAREN KONTZERTU AKUSTIKOA

Iruñeko Herriko Tabernan, otsailaren 7an.

Azkenaldian, asteazkenetan Iruñea izoztu egiten da. Beno, asteazkenetan, eta baita astelehenetik igandera doazen egun guztietan ere. Azken egunetan ere tenperaturak zerora heldu ezinik ibili dira, elurra egin nahi eta ezinean. Ez da, beraz, asteazkenero antolatzen diren HerrikON kontzertuen errua, Iruñea horren hotz egote hori.

Baina bai, asteazkenek badute xarma berezia Herriko Tabernan, nolabaiteko giro aurreikusetzin bat. Astero-astero joanda ere, ez dago inoiz jakiterik esertzeko tokirik izanzen duzun edota kontzertu pribatu batez gozatzeko aukera. Hala, hirian talde guztiz ezezaguna izanda ere, aurpegia gorrituriko entzule ausartez bete zen taberna. Elur xiri-miriarekin batera heldu zen Nøgen Karmen kalera.

“Biluzik” omen da taldearen izenaren esanahia danieraz, eta biluzik agertu zen boskotea publikoaren aurrean. *Utz nazazu ibiltzen arropa zaharretan, utz nazazu*


berpizten erreka estuetan aitortu ziguten lehen kantuan, haiek biluzten joan ahala gure gorputzetako hotza goxatu nahiko balute bezala. Eta hala izan zen, formatu akustikoan, folk-indie estiloko abesti alaiak goxotasunez aurkeztu baitzizkiguten entzuleoi. *LYS*, haien lehenengo EP laburraz gain, prestatzen dabilzan diskoko kantuak entzun ahal izan genituen, baita jendaurrean lehen aldiz estreinatu zuten abestia ere. Bertsioak entzuteko aukera ere egon zen, *Kansas City* ederraren euskarazko aldaera, esaterako. Ez dut aurretik aipatu, baina Jone Laspiur izan zen abeslari Iruñeko kontzertuan. Aurreko abeslaria, Ane Negeruela, kanpoan da eta bitartean Jone taldera batu da. Harrituta utzi gintuen bere ahots sendoak, akustikoan goxo eta hurbil abestu arren, nahi duenean indarra soberan duela erakutsi baitzuen.

Doinu arin eta alaiak uda girora eraman gintuzten oharkabean, otsaileko asteazken bat zela ahanteraino. Kan-

tuetan tartekatutako ingelesezko hitzek eta ukelelearen erritmoek beste leku eta garai bat gogorarazten zuten, Kaliforniako hondartza batean egonen bagina bezala, oinutsik eta axolagabe. Kanpoko hotzak ahaztuta, guztiz biluztu ziren donostiarrak gure aurrean, mikrofonorik erabili gabe ari baitziren kantuan konturatu ginenerako. Taldekide guztien ahotsen artean egiten zituzten jolasek haien arteko konplizitatea eta *rollo* ona transmititzen ziguten entzuleoi, estribilloak abesten saiatzen ginen bitartean. Amaierarako utzi zituzten taldearen abesti ezagunenak: *Gertu*, konposatu zuten lehenengo kanta, eta *Nora*, taldearen *singlea*.

Estribilloa oraindik airean zela hustu zuten oholtza eta, ez dut gezurrik esan, berriz ere entzuteko gogoz geratu ginen. Nøgenek oparitutako udako arropa zaharrak jantzi eta kalera irten ginen gu, neguko asteazkenei apur bat alaiago aurre egitera. ■

Ricardo Urrizola. Historia artxibo arakatzaileria



“Iruñeko Artxibo Militarra arakatu duen lehen historialaria da. Horren fruitu da *Consejo de Guerra. Injusticia militar en Navarra, 1936-1940* liburua (Altaffaylla-Txalaparta, 2017), *Navarra 1936: de la Esperanza al terror* liburu ezagunaren segida. Hark 3.000 hildakoren berri eman zuen. Honek auzitegi militarren ohiko jarduna, gizarte zibila militarren begietatik ikusia eta armadaren erabateko kontrola erakusten ditu.

“Badirudi 36ko Iruñean pistola, alkohola eta barrabilak zirela nagusi”



Xabier Letona

@xletona

ARGAZKIAK: JOSEBA ZABALZA

Prensa banatzaile

“Iruñeko Arrotxapea auzoan jaio nintzen 1968an eta lanbidez prentsa banatzailea naiz. Beti gustatu izan zait historia, baina ikerketa kontuetan duela 20 urte ekin nion. Lehenik genealogia eta Artzapezpikuko artxibategian, gero Tafalla aldean. *La Voz de la Merindad* –Eugenio Arbizu goitzenarekin– eta *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarietan idazten hasi nintzen. Jeronimo Ustariz Institutuko kide ere banaiz. Aurretik *Amunarrizketa-Iriberriko Historia* eta *Puiuko Historia* idatzi nituen. Hurrengo ikerketa folkloreaken esparruan egingo dut”.

Artxiboan aritzeko emandako laguntzategatik esker oneko hitzak izan dituzu militar batzuentzat. Gustatuko zaie liburua? Ez dakit, joan nintzen esatera noiz aurkeztuko zen, baina ez ziren etorri. Badakite 36ko Gerran puntu beltza dutela. Bartzelonako militar emakume goi-kargudun batekin hitz egin dut honetaz, eta hark dio orduan ere hainbat militar molde zirela eta Francoren aldekoek irabazi zutela. Haiek ere denak ez dira berdinak. Nik lasai egin izan dut lan, inongo arazorik gabe.

Zazpi bat urte pasatu dituzu gaia ikertzen eta militarrean sei hilabete. Nola egiten da lan han?

Nafarroako Artxibo Militarrean ez dago kamerarik, orduan soldadu bat egon behar zen nirekin denbora guztian. Esaten zidaten geldoegi nebilela, ezin zutela soldadua izan niretzat denbora guztian, baina nahi nituen argazki guztiak atera nitzakeela. Orduan, astean bi aldiz joanda, 10:00etatik 14:00etara, sei hilabete egin nituen dokumentuei argazkiak egin eta egin bi kamerekin. Gero azterketa osoa etxean egin nuen.

Mola jeneralaren idazkari Jose María Iribarren aritu zen defentsa lanetan gerra kontseilueta eta zera esan zuen: “Altzamen duaren lehen egunetako desmasiak zuzentzeko beharra du defentsa militarra”. Sinesgarria da?

Iribarrenek epaiketa asko bizi izan zituen eta astakeria asko ikusi, beraz, gerta liteke bestelako sentiberatasuna izatea, haien artean ere denak ez baitziren berdinak. Defentsarako eskaintzen zizkieten hiru militarren artean bat hautatu behar zuten auzipetuek eta ia beti Iribarren hautatzen zuten. Oker ez banaiz, esaldia Agoizko gazte baten epaiketan bota zuen: 23 urteko espetxea eskatu zion fiskalak, Iribarrenek absoluioa eta, azkenean, bi urteko kartzelarekin amaitu zuen.

36ko Gerran 3.000 bat pertsona hil zituzten frankistek Nafarroan, horietatik 40 auzitegi militarrek heriotz-zigorra zigortu ondoren.

Militarren esku erorita bazuten bizirik ateratzeko esperantza bat, falangista edo erreketean eskuetan erorita ez. Helburua ez hiltzea zen, beraz preso ateraz



"Militarren esku erorita bazuten bizirik ateratzeko esperantza bat, falangista edo erreketeen eskuetan erorita ez".

gero ongi. Gero hainbatetan Ezkabako presondegian libre uzten zituztenean, bigarren errebueltan hiltzen zituzten besteek. Jakina, informazioa militarrek pasatzen zieten.

Militarrek 40 hildako bakarrik? Hori ere pentsa dezake norbaitek.

Ni ere harrিতuta gelditu nintzen. "40 bakarrik? Hori esaten badut gizartean jango naute". Eta Emilio Majuelok esan zidan: "Ricardo, zuk hori ikusi duzu, bada idatzi hori eta listo".

Armada kolpistak, dena den, bazuen lan zikina nork egin.

Bai, noski. Militarrek gerra irabazi nahi zuten, hori zen lehen helburua, gero gainerako guztiak laguntzen bazien dena kontrolatua izaten, hobeto. Azken finean, dena zuten beren kontrolpean, eta karlisten eta erreketeen sarraskiak ere militarren erantzukizuna ziren. Gerra guztietan daude miliziak.

Liburuan etengabe aipatzen dira militarren, falangisten eta erreketeen arteko gatazkak eta auziak.

Francok falangistak eta erreketek batu zituen, baina lehia handia zegoen haien artean. Nafarroan falangistak gutxi ziren erreketekin konparatuta, baina boteretsuak. Erreketek falangistak ia komunista bezala ikusten zituzten. Falangistek boterea nahi zuten batez ere, karlistek Jaungoikoa, Aberria eta Legea; beti aritzen ziren erregearen aldeko oihuekin, eta teoriarik, armadarentzat hori delitua zen, Francoren aurka jotzea zelako. Oriamendi karlisten himnoa abestea ere debekatua zegoen. *Viva España!* zen karlisten oihua eta *Arriba España!* falangistena.

Kontseilu militarretan ikusten da akusazio gehienak oinarritzen zirela bizilagunek emandako testigantzetan.

Bai, hala zen. Etorkizun hobea lortzeko eta erregimenaren aurrean puntuak irabazteko izaten zen. Oso giro gogorra bizi zen gizartean, bereziki diskurtso ofizialek pixka bat ateraz gero.

Zure ikerketak zer ondorio izatea nahiko zenuke?

36ko Gerrari buruz zerbait gehiago ja-

kitea. Nire lan honetan ez da gogorrena agertzen, hori *Navarra 1936: de la esperanza al terror* liburuan agertu zen. Hemen azaltzen da Nafarroako bizitza zibila nolakoa zen eta nola kontrolatzen zuten dena militarrek. "Zer moduz aurkitzen ari zarenarekin?" galdetzen zidatenean –tarteetan hainbat militarrek– nik zera erantzuten nuen: "Bardirudi Iruñean garai hartan hiru gauza zirela nagusi: pistola, alkohola eta barrrabilak".

Asko geratzen da 36ko Gerraz ikertzeko?

Militarren zigor auzitegiez gain bazen Erantzukizun Politikoen Auzitegia. Zigor aretoa gaunditzen zutenak hara zihoazen eta han zigor ekonomikoa jartzen zieten. Cesar Layanak ikertu du gai hori eta zerbait argitaratzekotan izango da dagoeneko. Ferrolen ere izan nintzen lan honetan eta han 400 kutxa arakatu gabe utzi nituen, unibertsitate batekin egindako hitzarmen bidez ez bazen, esan zidaten ez zidatela utziko kutxa haiek ikusten. Ikerlari batentzat itzela da pentsatzea hori hor dagoela 1936tik ireki gabe. ■



Arbitro batek dio euskara batuan hitz egiten ez duten jokalariek zelaitik botako dituela

Joan den asteburuan epaile andaluziar batek Idiazabalgo eta Elgoibarko futbol jokalariek gaztelaniaz aritzera derrigor-tu ostean, aste honetan beste arbitro batek eman du notizia: euskara batuan hitz egiten ez badute, zelaitik kanporatuko dituela esan die Aurrera Ondarroa eta Arratia CD taldeetako jokalariek. "Bilbotarra naiz, AEK-n ikasi nuen euskaraz hitz egiten eta nazkatuta nago euskalkian aritzen jokalarien aldetik ulertzen


ez ditudan protestak entzuten", azaldu du Eduardo Gonzalez Iturralde epaileak. "Euskalkia niri iraintzeko erabiltzen dutela pentsatu izan dut beti eta asteburu honetako partiduak arrisku handia dauka alde horretatik, horregatik abisua". Sare sozialetan epailearen kontra agertu dira asko, #ArbitroLantzoit traola erabiliz. "Hori berdin zait", esplikatu du epaileak: "Lantzoit hitza hiztegi batuan dago: arrain bat dela jartzen du".

SAREAN ARRANTZATUA

Herriaren zaintzan non stop



Aurrekoak pixka bat etzanago nahi duela galdetzen dizunean...



Bill Cosby eta Kevin Spacey ohorezko kide izendatu ditu OXFAMek

OXFAMek, mundu zabalean injustiziak eta pobrezia borrokatzea helburu duen erakundeak, ohorezko kide izendatu ditu Bill Cosby eta Kevin Spacey aktoreak, urte luzez egindako lan humanitarioa txalotzeko. "Martxoaren 8a hurreratzen ari den honetan, egoki ikusi dugu bi aktoreok saritzea", adierazi du Karibeko OXFAMeko Putt Erosh eledunak: "Alferkeriak jota zeuden dozenaka gizon eta emakumeri lan-merkatura sartzeko ateak ireki dizkiete, geuk egin genuen bezala Haitin, adin txikiko prostitutak kontratatu genituenean. Herrialdea zartatu zuen lurrikarak baino gehiago dardarazi genituen kar kar kar. Gora emakume langileen borroka!".



ZULOAN

Bidaia bat AHT
eta lan-esplotazioan
barrena

Urko Apaolaza Avila



14 €

ARGIA
// LIBURUAK //

AHTko obren hesi laranja gainditu dugu

Lehen eskuko dokumentazio eta testigantzen bidez
egindako bidaia AHTko lan-esplotazioan barrena.

ARGIA eta Manu Robles-Arangizen elkarlanari esker argitaraturiko liburua.

ESKAERAK

www.argia.eus/denda | ☎ 943 371 545 | azoka@argia.eus

AHTzuloan



@AHTzuloan



www.argia.eus/blogak/zuloan



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzearra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com